

PROPOSATU ALA INPOSATU?

INDARKERIA SEXISTARI BURUZKO  
GAZTEEN PERTZEPZIOAREN  
ETA IRITZIEN DIAGNOSTIKOA  
ONDARROAN ETA MARKINA-XEMEINEN





Behin eta berriro esan dugu emakumeen kontrako indarkeria emakumeen diskriminazio egoeraren eta berdintasun faltaren ondorio larriena dela. Eta arazo estrukturala den neurrian, ezinbestekoa dugu gertakizuna ondo aztertzea eta prebentzio politikak martxan jartzea.

Azken azterketek erakusten dute indarkeria sexistaren biktimak diren emakumeak gero eta gazteagoak direla. Euskadin egiten diren salaketen %42a, 32 urtetik beherako emakumeenak dira; horregatik beharrezkoa da arreta haiengana jartzea.


Ondarroako udalak aspaldi aritu da gazteei zuzendutako prebentzio politikak diseinatzen eta martxan jartzen. Orain urrats bat gehiago ematea egokitzen zaigu: ezagutu beharra daukagu gazteek nola barneratzen duten, nola eta zertan nabaritzen duten ala ez, indarkeria sexista. Hortik etorri beharko dute prebentzio politika egokiak.

Gazteengan arreta jarritz, Ondarroako eta Markinako udalek herri bietako gazteek emakumeenganako indarkeria zelan sumatzen duten ezagutzeko diagnostikoa elkarlanean egiteko konpromisoa hitzartu dute.

Diagnostikoaren helburua tresna hobek eta zehatzagoak lortzea da, emakumearenganako indarkeriari aurrea hartzeko politika eraginkorrak burutu ahal izateko.

Neska eta mutil gazteak, indarkeria sexista ezagutu eta atzeman dezaten sasoiz eta aurrea hartu diezaien jarrera eta portaera basati horiei, tresna eta baliabidek eskuratu behar dizkiegu. Eurekin batera landu behar ditugu jarrera sexistak eta eurekin batera hausnartu, erasoen aurrean eginkizun aktiboa izan dezaten.

Asko dira lan hau burutzen euren laguntza eman dutenak. Eskerrak, beraz, parte hartzaileei eta bereziki ikastetxeei, hasiera hasieratik erakutsi duten borondatearengatik eta bidea egiteko eman diguten etengabeko laguntzagatik.



**Jabier Alberdi Ibaibarriaga**  
Markina-Xemeingo Udala



**Josune Ariztondo Akarregi**  
Ondarroako Udala

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

IKERKETAREN EGILEAK:

Sortzen   
consultoria s.l.

PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA:

Norma Vázquez

IKERTZAILE ARDURADUNA:

Ianire Estébanez

IKERTZAILE TALDEA:

Onintza Larrinaga eta Jone Gurrea

LAGUNTZAILEAK:

Piedad Dorado, Inma Merino, Itziar Gandía eta Miriam Herbón. Aurreko dokumentuaren eztabaida taldea. Carmen Delgado. Azterketa estatistikoa eta eskalak balioztatzea.

Iker H. , Edorta Q., Jon Ander L., Ainhoa E., Ainoa I. Landa laneko taldea.

Miren Urresti. Itzultzailea.

Ely Blanco. Laguntza administratiboa. [poisonestudio.com](http://poisonestudio.com)-ek diseinatua

## AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| 1. SARRERA  | 6  |
| 2. ESPARRU TEORIKOA   | 7  |
| 2.1. Indarkeria sexista, gazteen artean ere ematen da: kopuru batzuk                    | 7  |
| 2.2. Zein itxura du indarkeria sexistak gazteen nobiotzan?                              | 8  |
| 2.3. Neskak kontrolatzeko harremanen aurrean. Sumatzen dituzte? Zelan ulertzen dituzte? | 10 |
| 2.4. Eta mutilek, kontrolatzeko ahalmena sumatzen dute? Zelan justifikatzen dute?       | 11 |
| 2.5. Nesken eta mutilen pertzepzioak eta analisiak: elementu eragileak                  | 13 |
| 3. METODOLOGIA  | 14 |
| 3.1. Diagnostikorako tresnak  | 15 |
| 3.2. Datu soziodemografikoak (kuantitatiboak)   | 18 |
| 4. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK   | 21 |
| 4.1. Nesken emaitza nagusiak  | 21 |
| 4.2. Mutilen emaitza nagusiak   | 33 |
| 4.3. Nesken eta mutilen emaitzen konparazioa  | 45 |
| 4.4. Herri bietako gazteen emaitzen konparazioa   | 49 |
| 5. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK   | 52 |
| 6. BIBLIOGRAFIA   | 58 |
| 7. ERANSKINA  | 59 |

## I. SARRERA

Ondarroako eta Markina-Xemeingo Udalek erantzun egokia eman nahi diote gazteen arteko indarkeria sexistaren arazoari. Hori dela eta, ikerketa lan hau jarri zuten martxan, herri bietako neska-mutilen indarkeria sexistari buruzko pertzepzioak eta analisiak ezagutzeko.

Informazio iturri askoren arabera, indarkeria sexista gero eta “gazteagoa” da. Horrelako egiaztapenak delituen kopurua du oinarri, baina, zenbatu barik daude isilean gordetzen diren pilo bat jokabide, biktimak pentsatzen duelako ez direla salatzen adinakoak edota ez delako konturatu ere egiten indarkeriaren biktima dela.

Ondarroan eta Markina-Xemeinen ezabatu egin nahi dute indarkeria sexista, baina ez bakarrik ageriko indarkeria, hau da, salatzen dena. Errotik ezabatu nahi dituzte zeharkako indarkeriaren oinarriak, emakumeen eta gizonen desberdintasuna iraunarazteko esparrua delako. Izan ere, emakumeak egoera ahulean jartzen ditu, euren bizitzan indarkeria motaren bat jaso dezaketelako.

Diagnostikoa udal bien ekimena da,

ezagutzeko neska-mutilek zelan sumatzen dituzten indarkeria sexistaren jokabide batzuk eta zein argudio erabiltzen duten gaitzesteko edo onartzeko. Diagnostikoaren helburua tresna hobetoak eta zehatzagoak izatea da, emakumearenganako indarkeria prebenitzeko politikak gauzatzeko, batez ere gazteen prebentziorako.

Ondarroako eta Markina-Xemeingo Udalek berdintasun politiken ezarpen desberdina dute, baina elkarrekin egin dute ikerketa eta Emakunderen<sup>1</sup> laguntza izan dute. Bestalde, diagnostikoak 15 eta 18 urte bitarteko neska-mutilak hartu ditu erreferentzia talde, uste duelako adin horietan hasten direla lehen bikote harremanak eta orduan prebenitu daitezkeelako mutilek neskenganako dituzten kontrolatzeko jokabideak.

Lana egiteko ezinbestekoa izan da herri bietako eskola zentroen laguntza. Egin beharrekoaren eragile nagusi direnez, diagnostikoaren emaitzek eurak ere inplikatzeko dituzte.

Eta gainerako herritarrentzat ere, garrantzitsua da jakitea belaunaldi berriak zein neurritan dabilzan bereganatzen emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioak.

---

<sup>1</sup> Proiektuak Emakunderen diru laguntza jaso du ikerketa egiteko.

## 2. ESPARRU TEORIKOA

### 2.1. Indarkeria sexista, gazteen artean ere ematen da: kopuru batzuk

Emakumeen aurkako indarkeria gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazlerik larriena da. Azken urteotan, indarkeriaren ezagutza eta sensibilizazio soziala handitu egin da, baina indarkeriaren adierazle desberdinak ere sumatu dira.

Horrela, luzaroan, eta, batez ere, hedabideetan, genero indarkeriaren delituari buruz berba egiten dute-nean, bikote egonkor eta helduetan ematen den indarkeriaren gainean dabilta, gehienetan, indarkeria fisikoaren edo hilketaren gainean. Denbora pasa ahala, hobetzen joan da indarkeriaren adierazpen sotilagoak sumatzeko ezagutza, pareko garrantzia dutelako desberdintasun egoeran. Beraz, horrela joan izan da azalera-tzen indarkeriaren egoera gazteen arteko bikoteetan: uste izana baino askoz ere gehiago ematen dena, adierazpen asko eta zehatzekin, zerikusi dutenak neska-mutilen arteko harreman motekin.

Indarkeria belaunaldi gazteetan asko ematen dela egiaztatzeko, estatistika ofizialetara joko dugu. Datuek diote bikotekideak eragindako indarkeriaren biktimak gero eta gazteagoak direla.

- Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila), 2009. Urteko Txostenean, honakoa dio: 2009an, bikotekideak edo bikotekide izandakoak eragindako indarkeriaren biktimen %35 18 eta 30 urte bitartekoa zen.

- Bestalde, askatasun sexualaren aurkako erasoak kontuan hartuta, kopuruak argi erakusten dute emakumeek, zenbat eta gazteagoak izan, aukera handiagoa dutela horrelako erasoak jasateko. Izan ere, bizi izandako indarkeria salatu duten biktimen %68 30 urtetik beherakoa da.

- Era berean, Ertzaintzaren datuen arabera, egunero 3 eraso daude 13 eta 30 urte bitarteko nesken aurka; erasotzaileak bikotekidea edo bikotekide izandakoak dira.

Datuok erakusten digute indarkeria sexista ez dela “gainditutako” arazoa, ez dela “lehenako gauza”. Zer edo zer dago gazteen maitasun harremanetan genero desberdintasunak eta estereotipoak betiketzen, indarkeria behin eta berriro sortzen.

Gazteetan estereotipo sexistak egon badaudela eta emakumeenganako indarkeriari buruzko pertzepzioa aztertzeko, Berdintasun Ministerioak ikerketa bat egin berri du. 11.020 ikaslek hartu dute parte, batez besteko, 17 urtekoak, eta, hona hemen, ikerketako ondorio kezagarri batzuk:

- Mutilen % 13,1ek onartu zuen tratu txarrak eragin diela edo eragiten saiatu dela noizean behingo neskalagunei, eta nesken %9,2k onartu zuen tratu txarrak bizi izan dituela.

- Mutilen %26k uste du ez dela tratu txarra “bikotekidearen harremanak kontrolatzea”, %30,7k ez dela tratu txarra “ezer ez duela balio esatea”, eta %35ak dio ez dela tratu txarra “egiten duen guztia kontrolatzea” (azken horrekin bat dator nesken %26,2).

- Dominazio-sumisio patroiei buruz, mutilen %12,2 ados zegoen esaldi honekin: “bikote harreman ona izateko, komenigarria da emakumeak gizonari kontrarik ez egitea”.

- Ageriko indarkeria fisikoa kontuan izanda, mutilen %6,8 ados dago gizonak andrea jotzen duenean, zer edo zer egingo zuela andreak probokatzeko ustearekin.

- Eta, azkenik, gazteen artean jokabide sexistak kontuan hartzen baditugu, mutilen %10,7k eta nesken %7,4k uste dute gizona, zenbat eta agresiboagoa, erakargarriagoa dela.

Era berean, beste ikerketa batzuek ere ondorioztatu dute neska-mutil askok uste dutela ahal dela baten bat maitatu eta jo, edo harremanean normala

dela neska harreman sexualak izatera derrigortzea. Uste eta estereotipo sexistek emakumeak zigortu eta desberdintasun egoerak betikotzen dituzte, eta, itxura denez, indartsu jarraitzen dute gaur egungo gazteen artean. Beraz, horrek guztiak erakusten digu zer ezagutu, zer ulertu eta zer hezi asko dagoela desberdintasuna eta emakumearenganako indarkeria desagertzeko. Hori dela eta, guztiz garrantzitsua da nerabeen eta gazteen egoera ezagutzea, sasoi horietan hasten direlako maitasun harreman ugari, eta harreman txarrak prebenitzeko era delako.

## **2.2. Zein itxura du indarkeria sexistak gazteen nobiotzan?**

Sarritan, indarkeriaren kontzeptua eraso fisikoen arlora mugatzen da. Baina, indarkeria ez da bakarrik fisikoa, era desberdinetan adierazten da, eta denak ez dira erraz sumatze-koak.

Izan ere, neska-mutil gazteen harremanetan, kontuan izan behar dugu harremanok ez dutela elkarrekin bizi diren bikoteen iraupena edo konpromisoa, edota gazteek harremanak izateko eremuak ez direla bikote helduek dituztenak (institutua, jai giroa...). Alde batetik, egitura eta jokabideen kontrol handiagoa daude – eskola giroa- eta bestetik, malgutasun handiagoa dago noizean behingo moduan ulertzeko – aisialdi giroa eta denbora librea-.



Gazteen eta nerabeen ezaugarri zehatzak gogoan baditugu, kontuan hartu behar dugu zein garrantzitsua den sasoi horietan ideal erromantikoa eta esperientzia eza. Izan ere, gaztetan hasten dira lehen harremanak, eta esandako guztiaren ondorioz, indarkeriaren adierazpenak maitasunarekin edo ardurarekin nahastu edo mozo-rrotu daitezke.

Horrela, egon badaude indarkeria fisikoaren kasuak gazteen artean, baita hildakoak ere, baina, indarkeria gehiena psikologikoa da, hau da, ez du ageriko adierazpen fisikorik, baina ezaugarri du jokabide eta jokamolde femeninoen kontrol maskulinoa. Horrelako indarkeria motak rolen eta harremanen normalizazioa sortzen du, mugak zehaztea gaitz egiten duena.

Indarkeria psikologikoa nobiotzan aztertzeke eta maila batzuk ezartzeko, 2007an ikerketa bat egin zen 15 eta 25 urteko nesken artean. Bertan azaldu ziren zeintzuk diren neska gazteengana indarkeriaren ohiko agerpenak (Vázquez, Estébanez, Cantera 2009).

Ikerketan indarkeria psikologikoaren pertzepzioa landu zen, batez ere maila jakin batzuetan. Hona hemen emaitzarik garrantzitsuenak:

- Gazteen harremanetan sarrien agertzen diren indarkeria motek

zerikusi zuzena dute **kontrolatzeko** jokabideekin (neskaren harremanak, janzteko era, mezuak... kontrolatzea). Mutilarentzat, kontrolatzea neskak egiten duen guztia jakitea da, menpean izateko eta zer egin behar duen edo ez duen agintzeko.

- Bestalde, neskaren harreman guztiak kontrolatu nahi izateak, batzuetan, **isolamendua** dakar. Horrelako indarkeria neskari beste-lako harremanak izaten edo bititza sozialik izaten ez lagatzen dator.

- **Zeloak** sarritan ematen dira gazteen artean. Kontuan izan behar dugu jokabide jeloskorra, nahiz eta maitasunaren seinale dela uste izan, eraso fisikoen arrazoi nagusia dela gazteen bikoteetan; izan ere, hilketen arrazoi nagusia da. Beraz, zeloak azpimarratu beharra dago, arrisku faktore garrantzitsua direlako.

- Horri lotuta, **jazarpen** jokabideak zerikusi du neskak egiten duen guztiaren zaintzarekin edo jarraipenarekin. Aipatutako indarkeria mota harremanak amaitzen direnean ematen da, mutilak neska-ekin bueltatu nahi duenean.

- **Deskalifikazioak eta umiliazioak**, irainak, kritikak, barre egitea edo kexak dira, eta neskaren autoestimua makaltzea dute helburu (neskari barre egitea, pentsatzeko era kritikatzeko, beste neskekin konparatzea, dena txarto egiten

duela esatea, etab...)

- Indarkeria eragiteko “ezkutuko” era bat manipulazioa edo **azpijoko emozionala da**. Horrelakoetan, gezurrak erabiltzen dira, nahi dena lortzeko (laga egingo duzula esatea, pena sentimenduak eragitea edo berba ematea jakinda ez dela beteko).

- Indarkeria psikologikoa eragiteko era sotilagoa **indiferentzia afektiboa da**. Sentimendurik ez erakustea, kasurik ez egitea, neskaren arazoak ez direla garrantzitsuak ustea, isilik egotearekin zigortzea, indarkeria pasiboaren adibide dira, eta, nahiz eta ikusi ez, kalte handia eragiten diote biktimari.

- Azkenik, ageriko edo ikusten den indarkeriaren adibideak zuzeneko mehatxuak, indarkeria sexuala eta indarkeria fisikoa dira.

### **2.3. Neskak kontrolatzeko harremanen aurrean. Sumatzen dituzte? Zelan ulertzen dituzte?**

Indarkeria sexistaren gainean gabiltzanean, kontuan izan behar dugu zuzenagoa edo sotilagoa izan daitekeela eta era askotara ager daitekeela. Hala eta guztiz ere, indarkeriaren pertzepzioa definitu, mailakatu eta ebaluatu egin behar dugu, kanpoko irizpideekin.

Era berean, barruko irizpidea ere badago, pertzepzioaren gainean jarduten dugunean. Pertzepzioa prozesu psikologikoa eta subjektiboa da. Beraz, pertsona batentzat indarkeria dena besterentzat ez da. Egoera zehatz batean ere suma daiteke, baina beste batean ez, edo denbora irizpideari lotu. Motzean esateko, indarkeria psikologikoa sumatzeko orduan, neskek irizpide desberdinak ezartzen dituzte jokabide bat indarkeria den ala ez erabakitzeko.

Nobiotza harremanetan jasotako indarkeriaren nesken pertzepzioa argitzearren, lehen aipatutako ikerketa egin zen, eta ebaluazio tresna berezia diseinatu zen, nesken pertzepzio maila neurtzeko, VEC eskala (Vázquez, Estébanez, Cantera, 2009). Eskala hori erabilia, bere egiaztatze zientifikoarekin eta eztabaida taldeetan egindako landa lanarekin (Bizkaiko 386 neska, 15 -25 urtekoak), ondorio nagusi hauek lortu ziren:

- Lehena, egiaztatu zen parte hartu zuten neska gehienek nobiotza harremanetako indarkeria psikologikoaren pertzepzio baxua zutela. Izan ere, lau nesketatik, batek hartzen zituen eskalako jokabideak indarkeriazkotzat, eta lautik hiruk erdiko pertzepzioa (nahastua) edo pertzepzio baxua zuten.

- Pertzepzioa moduz aldatzen zen adinaren arabera (neska gazteagoek (15-18 urtekoak) arazo gehiago zituzten sumatzeko nagusiagoek

baino (19-25 urtekoak), eta lan egoeraren arabera (bakarrik ikasten zebiltzan neskek pertzepzio txikiagoa zuten lanean zebiltzanek edo ibilitakoek baino).

- Era berean, aztertutako indarkeria motei buruz, egiaztatu zen neskek erraz sumatzen dituztela bistarago dauden jokabideak, zuzeneko mehatxuarekin, isolamenduarekin edo irainarekin zerikusi dutenak. Ostera, zailtasun handiak dituzte indarkeria psikologikoaren mailatzat hartzeko indiferentzia, manipulazio edo jazarpen jarrerak, oso gutxitan sumatzen zituztelako, edo, batzuetan, indarkeria direnik ere ukatu egiten zuten, jarrerok arduraren eta erromantizismoaren agerpenak zirela eta.

- Bestalde, nesken iritzietan nahaste handia zegoen eta indarkeriari buruzko argudioetan behin eta berriro agertzen diren elementuak ere aurkitu ziren. Batez ere, mutilen indarkeriazko jokabide batzuek normalizatuta dituzte, gizonen ezaugarri, naturalak direla diote, eta horrelako jokabideek dakarten indarkeria ukatu egiten dute. Baita, uste dute jokabide horiek maitasunaren seinale direla, eta maitasunari esker, jokabideok desagertu egingo direla, "maite badute, dena konpon daiteke, eta mutila aldatu egingo da".

Indarkeria psikologikoa bikotean sumatzeko era hori arriskutsua da neskeentzat, ez dutelako ikasi berdintasun egoerak eraikitzen eta defendatzen harremanean, nahiz eta euren iritziak berdintasunekoak izan. Indarkeria, testuinguruaren eremua laga eta ageriko jarrera egiten denean, neska gehienek ez dute ulertzen zer gertatu den, eta joera handia dute eurek egindako zer edo zeretan justifikatzeko edo errua euren buruari botatzeko.

#### **2.4. Eta mutilek, kontrolatzeko ahalmena sumatzen dute? Zelan justifikatzen dute?**

Mutil gazteei buruz gabiltzanean, ostera, ez dugu informazio handirik jakiteko zelan sumatzen dituzten indarkeria sexistaren egoerak, edota, batez ere, zelan sumatzen duten euren burua bikotekidearen aurka edo nesken aurka eragin dezakeen indarkeriaren subjektu.

Kaleko esanetan oinarrituz gero, mutiletan "erromantizismoaren" faktorea ez da hain garrantzitsua maitasun harremanean dituzten jarrerak baloratzeko orduan. Baina, 15-18 urteko 224 ikasleei egindako ikerketa baten arabera, ideia hori alboratu egin beharko dugu (Izarra, Pinto eta Arroyo, sf). Bertan, egiaztatu zen maitasun erromantikoaren barruratzeko maila handiago zela mutilen artean nesken artean baino; mutilen %62 eredu horren aldekoak ziren; nesketan, ostera, %43. Beraz, mutilek,

gaztetan behintzat, maitasun idealaren, betikoaren eragin handia dute, “emakume perfektuaren” eragina, hau da, maitasun erromantikoaren ideiarik betikoena, neskak sekulako sakrifizioak egingo dituela berarengatik.

Eskola arloan, gazteekin egindako ikerketa gehienak era mistoan egiten dira, galdera sorten bidez, neska-mutilek era inpersonalean betetzen dituztenak.

Horrela, jarrerak aztertzen dira kontuan izan barik non ematen diren (desberdinen arteko harremanean), nesken eta mutilen arteko desberdintasunak alboratuta (indarkeriak neskentzat eta mutilentzat dituen ondorioak eta esanahiak). Hau da, kontuan izan barik indarkeria ematen den esparru soziokulturala. Indarkeriak generoa, historia eta estereotipoak ditu, ondo errotuta daudenak, eta norabide bakarrean eragiten du, emakumearen kontrola lortzeko.

Baina, adin handiagoko gizonen talde-  
ra hurrerutzen bagara, egin izan dira tratatu txarrak eragiten dituzten gizonen azterketarik. Horrelakoetan agertu izan da euren indarkeria justifikatzeko kanpokoei botatzen dietela errua (batez ere bikotekideari), egindakoak ukatu egiten dituztela, edo garrantzia kentzen dietela, edota beste gizon batzuen iritzietan oinarritzen direla, egoki jokatu zutela esaten dietenak. (Ramírez, 2000)

Nerabeen gainean, egile batzuek diote nobiotza harremanetan indarkeriaren ukatze maskulinoa dagoela (Rivera, 2002). Euren esanetan, ukatzeak gizonak emakumeen probokazioen edo tratatu txarren biktimatzat hartzea dakar batzuetan (Bonino, 2002), harremanean, erreferentzia esparru dutelako bizitzan ikasitako izaera maskulino tradizionala. Nagusitasun izaera, emozioak ez adieraztea, ideiak inposatzeko joera, arrazoia duela ustea. Horiexegatik, aipatutako egileek uste dute maskulinitate tradizionalak zailtasunak dituela harremanean bere indarkeria objektiboki sumatzeko.

Era berean, azpimarratu dute mutil gazteentzat (gainerako gizonentzat moduan) gaitza dela indarkeria sexuala sumatzea; eurentzat, jarduera sexualak “gizonago” egiten ditu, eta bikotekideak benetan maite badu, sexuaren bitartez erakutsi behar dio. (Villaseñor, 2003)

Hori dela eta, nerabeak aztertzeko jarduerak “gizon izateko” era berriak nabarmentzen dituzte, maskulinitate tradizionala baztertzeko, eta aldaketa gaztetandik sustatzen da, maskulinitatea berdintasunean oinarritzeko, aldaketa sozialarekin bat eginda. (Martínez, sf).

Zentzu horretan, oso garrantzitsua da mutil nerabeekin behar egiteko orduan jarrera egokiarekin hurreratzeari, erruan edo denak erruduntzat jotzen duten lan ikuspegiak ez

dutelako ezertarako balio, eta mutilok aurka jartzea sustatzen dute.

Horrexegatik, eta ebaluaziorako egiaz-tatutako tresnarik ez dugunez, (nesken kasuan bai), diagnostikoan mutilentzako eskala egitea erabaki da, maskulinitateari buruz hausnartu izan duten gizonen laguntzarekin egindakoa, hasiera batean, erruduntzat hartzen ez dituen, eta batez ere indarkeria sexuala kontuan hartu duena (ikus metodologiaren atala)

## **2.5. Nesken eta mutilen pertzepzioak eta analisiak: elementu eragileak.**

Indarkeria sexistaren agerpen psikolo-gikoaren pertzepzioa oso kontzeptu konplexua da. Hori dela eta, diagnos-tikoa egiteak arlo garrantzitsua aztertzea dakar.

Indarkeria psikologikoari buruzko neska-mutilen pertzepzioa ebaluatzea jokabide zehatz baten aurrean duen jarrera aztertzea da (indarkeriazko jokabidea den ala ez, larria den ala ez uste badu). Baina, horrek ez du esan nahi jarrerak zuzeneko lotura duenik jokabidearekin, hau da, ezin da izango duen jokabiderik aurreikusi jokabideari buruz izan duen balorazioarekin. Pentsa daiteke jokabidea ez dela egokia, eta, hala eta guztiz ere, egin egin daiteke (Fishbein eta Azjen, 1975). Kontraesan horrek eraginda, pertsonak argudioak behar ditu txarto dagoena egingen duelako. Orduan, kasu askotan,

eraso maskulinoen arrazoiak jokabide femeninoan bilatzen dira, horrela, indarkeria eragiten duenak ez duelako erantzukizunik.

Zentzu horretan, kontuan izatekoa da diagnostikoan indarkeria sexistari buruzko hausnartze sistema bi azter-tuko direla:

- Lehenengoa, nobiotzan kontro-latzeko jokabideei neska-mutilek ematen dieten balorazioa da. Guztia galdera sorta kuantitatibo eta anonimoaren bitartez aztertu da. Balorazioa jokabide zehatz baten gaineko jarrera da, indarkeria sexistaren agerpen moduan sumatzea den, eta zein mailatan.

- Analisisirako bigarren sistema jokabideei buruzko argudioak dira, eztabaida taldeetan erabili zena. Taldeotan neska-mutilek jokabide bat indarkeriazkoa den ala ez den arrazoiak eman zituzten, hau da, jokabideok ulertzeko duten azalpena. Sistema horretan erabili-tako argudioetan eragina duten elementu asko daude: arau sozialak, gizarteak bultzatzen dituen nesken eta mutilen jokabideak, egokia dena esatea, gaiari buruz entzun diren mezuak, gehiengoaren edo taldearen iritzien eragina...Horiek elementu guztiak, batzuetan, kontrajarriak ere izan daitezke, baina emaitza kuantitatiboak ulertzeko kontrapuntuak dira.

Analisirako sistema bi horiek ez dute

### 3. METODOLOGIA

zertan bat etorri, hau da, jokabide batean aurka egon daiteke, hasiera batean egingo ez dena, baina argudioak zalantzazkoak izan daitezke; edota, eskalan ez da jokabide bat indarke-riazkotzat hartzen, baina taldean eztabaidatu behar denean, bestelako argudioak ematen dituzte.

Era horretan, diagnostikoak arlo kuantitatiboa eta kualitatiboa aztertu ditu, eta, ondorioz, Ondarroako eta Markina-Xemeingo gazteen errealtatea hobeto ezagutuko dugu, neska-mutilek zelan sumatzen eta azaltzen duten indarkeria sexista kontuan dituen era osagarrian eta lotutakoan.

Ikerketan 418 gaztek hartu dute parte, 205 neskek eta 213 mutilek, arlo kuantitatiboan zein kualitatiboan.

Arlo kuantitatiboko lagina herri bietako erroldaren datuen arabera aukeratu zen. Guztira, 15-18 urteko 438 gazte daude herri bietan. Hauxe da banaketa:


|         | Herri    |                |         |
|---------|----------|----------------|---------|
| SEXUA   | ONDARROA | MARKINA-XEMEIN | GUZTIRA |
| NESKAK  | 131      | 83             | 214     |
| MUTILAK | 158      | 66             | 224     |
| GUZTIRA | 289      | 149            | 438     |

Iturria: Herri bietako errolden datuak. 2010eko martxoan.

Inkestak hezkuntza zentroetan egin ziren. Baztertu egin ziren adinez nagusiago ziren neska-mutilak edota beste herriren batean bizi zirenak.

- Arlo kuantitatiboa kontuan hartuta, 301 gaztek erantzun diete eskalei, 153 neskek eta 148 mutilek, **%65** Ondarroakoak eta **%35** Markina-Xemeingoak, proportzioa kontuan izanda.

**1 Grafikoa. Eskala kuantitatiboetara erantzun dieten nerabeen kopurua guztira.**



301 gazteen multzoa erreferentziazko biztanleriaren neurri adierazgarria da, %3ko lagin errorearekin eta %97ko fidagarritasunarekin emaitzak orokortzean.

Beraz, lortutako emaitzak Ondarroako eta Markina-Xemeingo 15-18 urteko gazte guztiei zabal daitezke.

### 3.1. Diagnostikorako tresnak

Diagnostikorako erabilitako tresnak hauexek izan ziren:

#### 3.1.1. Datu kuantitatiboak: pertzepzio eskalak

Datu kuantitatiboak lortzeko, eskala eta galdera sorta erabili ziren, alde

batetik, neskenzat eta, bestetik, mutilentzat.

#### Neskentzat

Neskentzat, VEC Eskala erabili zen. Eskala aurrez egiaztatuta zegoen eta euskarazko bertsioak  $\alpha = 0,976$  fidagarritasun indizea du. Eskalak dimentsio-bakarreko egitura du, eta konstruktua bakarra neurtzen du: *“Indarkeria psikologikoaren larritasunaren pertzepzio femeninoa gazteen nobiotza harreman heterosexuallean”*

Eskalak 25 item ditu, 10 kategorietara dagozkienak. Eskalaren baremoaren arabera, **identifikazioan** lor daitekeen puntuaziorik altuena 125 da. 0-70 bitarteko puntuazioa duten neskek indarkeria psikologikoaren pertzepzio baxua dute; 71-89 bitarteko puntuazioa dutenek erdiko pertzepzioa dute eta 90 puntu baino gehiago dutenek, indarkeria psikologikoa osatzen dituzten jokabideen pertzepzio altua dute.

Bestalde, **intentsitatearen** puntuazioa dago, 1etik 5era; 1 intentsitate minimoaren balioa da eta 5 muturreko intentsitatearena.

Orduan, eskalak indarkeria psikologikoaren identifikazio maila eta indarkeriazko jokabideen larritasunaren intentsitatea neurtuko ditu.

Era berean, tresnan nesken aldagai

hauen erantzuna sartu zen: adina, hezkuntza zentroa, ikasketa maila, nazionalitatea, lan egoera eta bikote harremanik duen ala izan duen<sup>2</sup>.

### *Mutilentzat*

Mutilen kasuan, ez zen aurrez egiaztatutako eskalarik. Hori dela eta, indarkeriaren pertzepzio maskulinoa landu izan duten ikerketak aztertu ziren, gaiaren ezagutza lortzeko. Adituen iritziak ere aztertu ziren, eskala berrirako itemak aukeratzeko.

Azterketa teorikoak erakutsi zuen diagnostikoan indarkeria fisikoari eta indarkeria sexualari lotutako itemak ere sartu behar zirela. Beraz, nesketan bakarrik indarkeria psikologikoaren pertzepzioa neurtu den bitartean, mutiletan bestelakoa ere neurtu da.

Sartu beharreko jokabideak aukeratzeko analisian parte hartu zuten gaien adituak direnek, hezitzaile gazteek, indarkeriaren prebentzio tailerretako dinamizatzaileek eta maskulinitateak aztertzen adituak direnek.

Tresna berria, *VE-m* eskala euskarazko bertsioan, zientifikoki egiaztatu da eta indize altuak lortu ditu, nesken eskalak

lortutakoen parekoak.

- **Fidagarritasun indizea 0,944koa** da (Indizea 0 eta 1 bitartekoa izaten da, eta  $\geq 0,85$  inguruko indizea egokia izaten da). Fidagarritasunak neurriaren **doitasuna eta sendotasuna** adierazten du eta bermatu egiten du lortutako puntuazioa ez dagoela faktore aldakorren mende, hau da, ebaluazio tresnarekin fida gaitzkeela.

- Eskalaren balioari buruz, esan beharra dago bermatu egiten duela lortutako puntuazioek neurtutako helburuaren gaineko informazioa ematen dutela (bikotekidearen aurka eragindako indarkeria) eta ez beste arlo batzuetakoa, hau da, neurtu nahi duen konstruktua dela. Eskalaren **baliotasuna %61,92koa** da (Gizarte zientzietan, %60ko bariantza zientzia fisikoetako %100aren parekoa da, neurria ez delako hain zehatza)

Baliozkotutako konstruktuari honelaxe deitu diogu: *“Gazteen arteko nobiotza harreman heterosexuallean eragindako indarkeriaren larritasunaren pertzepzio maskulinoa”*. 25 item ditu, 11 kategoriei dagozkienak.

*VE-m* eskalaren baremazioaren

<sup>2</sup> Nesken taldearekin erabilitako tresna 1 eranskinean dator.



arabera, **identifikazioan** lor daitekeen puntuaziorik altuena 125 da. 0-55 bitarteko puntuazioa lortu duten mutilek indarkeriaren pertzepzio baxua dute; 56-92 bitarteko puntuazioa lortu zutenek, erdiko pertzepzioa eta 93 puntu baino gehiago izan dutenek eragin dezaketen indarkeriaren pertzepzio altua edo egokia dute.

Bestalde, **intentsitatearen** puntuazioa 1etik 5era doa; 1 intentsitate minimoa da eta 5 muturreko intentsitatea.

Era berean, neskekin egin zen moduan, tresnan aldagai hauen erantzuna sartu zen: adina, hezkuntza zentroa, ikasketa maila, nazionalitatea, lan egoera eta bikote harremanik duen ala izan duen.


### 3.1.2. *Datu kualitatiboak: eztabaida taldeak*

Datu *kualitatiboak* lortzeko, hezkuntza zentroen bitartez eztabaida taldeak osatu ziren, galdera sortetan neska-mutilek emandako azalpenak eztabaidatzeko eta aztertzeko. **117** gaztek hartu zuten parte.

Eztabaida taldeak dinamizazio talde batek bideratu zituen, partaideen sexuen arabera: nesken taldeen kasuan, neska dinamizatzaile gazte bi, eta, mutilen kasuan, mutil dinamizatzaile gazte bi. Batez beste, talde bako-

tzak 7 partaide zituen, eta 90 minutu iraun zuten. Taldeotan eztabaidatu ziren argudioak hauexek izan ziren: aurkeztutako itemak indarkeriazko jokabideak ziren ala ez eta zein intentsitate maila ematen zieten.

**2 Grafikoa. Hausnarketa taldeetan parte hartu duten nerabeen kopurua guztira**



Nesken 7 eztabaida talde egin ziren (3 Markina-Xemeinen eta 4 Ondarroan). Guztira 52 partaide izan ziren, Markina Xemeingo Institutukoak, Berakruzkoak, Ondarroako Institutukoak eta Zubi Zahar ikastolakoak.

<sup>3</sup> Mutilen taldearekin erabilitako tresna 2 eranskinean dator.


Era berean, mutilen 9 talde osatu ziren, guztira 65 partaide. 4 talde Ondarroakoak ziren, Institutukoak eta Zubi-Zaharrekoak; 3 talde Markina-Xemeingoak ziren, Institutukoak eta Berakruzkoak. Taldeak osatzeko orduan, kontuan izan zen gazteen aniztasuna. Hori dela eta, Lea Artibaiko LHIn talde 2 egin ziren, zentroko erabiltzaileen ezaugarrien araberakoak: talde bat eskualdeko 6 mutilekin eta beste bat Senegalgo 5 mutilekin, inguruko etorkinen kolektibo garrantzitsuaren iritziak ere aztertu ahal izateko. Azken talde horretan, eta komunikazioa errazteko, eztabaida taldean frantsesa erabili zen.

### 3.2. Datu soziodemografikoak (kuantitatiboak)

#### 3.2.1. Partaideen adina

Lan prozesuan, nerabeen adin tartea aukeratzea erabaki zen, aurretik egindako azterketek erakutsi dutelako nerabeek indarkeriazko egoerak sumatzeko arazo gehiago dituztela. Beraz, partaideen adina 15-19 urteko tartea izanda, batez ere **16 urteko** gazteak ziren (nesken %41,2 eta mutilen %35,1) eta, bigarren, 17 urtekoak (nesken %22,2 eta mutilen 23,6)


**3 Grafikoa. Nerabeen adina. Zerbaki absolutuak.**



#### 3.2.2. Hezkuntza zentroa

Diagnostikoko partaide gehienak Ondarroako Institutuko ikasleak ziren (nesken %39,2 eta mutilen %41,2) edo Lea Artibaiko Institutukoak (nesken %26,1 eta mutilen %29,1). Berakruz, Markinako BHI, Txomin Agirre eta Zubi Zaharreko ikasleak ere izan ziren partaide.

**4 Grafikoa. Nerabeen hezkuntza zentroa. Zenbaki absolutuak.**




- Ondarroako Institutua
- Markinako Institutua
- Lea Artibai
- Berakruz
- Txomin Agirre
- Zubi-zahar
- Bekobenta
- Arrantza eskola

### 3.2.3. Hezkuntza maila

Gazteen hezkuntza maila dela eta, gehienak **Batxilergoa** ikasten zebiltzan (nesken %52,3 eta mutilen %45,9) edo **Bigarren Hezkuntzan** (nesken %47,1 eta mutilen %44,6). Lanbide Heziketako ikasleak gutxiago ziren (nesken %0,7 eta mutilen 8,1)

**5 Grafikoa. Nerabeen ikasketa maila. Zenbaki absolutuak.**



- Batxilergoa
- DBH
- LH

### 3.2.4. Nazionalitatea

Nesken **%98,7** eta mutilen **%95,9 hemengoxeak** ziren, eta nesken %1,3 eta mutilen %2,7 kanpokoak.

### 3.2.5. Lan egoera


Era berean, lan egoeraren ehunekoek erakusten dute nesken **%94,8** eta mutilen %91,2 **bakarrik ikasten** zeudela. Ostera, nesken %5,2 eta mutilen %8,8 ikasten eta beharrean zebiltzan.

### 3.2.6. Egun maitasun harremanik duten

Gaur egun duten harremanari buruz

galdetzean, neska gehienek esan zuten harreman **formala** zutela (galderari erantzun zien nesken %54,5). Harremanik ez zutela esan zutenak %28,6 izan ziren, eta harreman informaldunak %16,9. Berriz, mutil gehienek erantzun zuten **ez zutela** harremanik (%52,1), eta ehuneko txikiagoan harreman formala dutela (%28,2) edo harreman informala (gainerako %18,3).

**6 Grafikoa. Egungo harreman mota. Zenbaki absolutuak.**



Zentzu horretan, azpimarratzekoa da harreman motaren gaineko balorazioa neska eta mutil bakoitzak egin zuela, galderei erantzunda. Beraz, bakoitzak

bere bikote harremanari buruz egindako balorazio subjektiboak dira.

Horrela, ikusi dugu neska gehienek harreman formalak izateko joera dutela (formaltzat hartzen dituzte behintzat). Mutil gehienek, ostera, gaur egun ez dute maitasun harremanik (edo ez du uste harremanik duenik).

Emaitzaren hasierako hipotesiak dio, batetik, edo neskek mutil zaharragoekin dabiltzala, edo, bestetik, nesken maitasun harremanen balorazio subjektiboak garrantzi gehiago ematen diela harremanoi.

### 3.2.7. Aurreko maitasun harremanak

Izandako maitasun harremanen balorazioak direla eta, galderari erantzun zioten gehienek (harremanik ez zutenek) esan zuten aurretik **ez zutela harremanik izan** (nesken %58,8 eta mutilen %57,7). Aurretik harreman informala izan zutenak nesken %27,9 eta mutilen %29,6 ziren, eta harreman formala izan zutenak, nesken %10,3 eta mutilen %12,7.


#### 4. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK

##### 4.1. Nesken emaitza nagusiak

###### 4.1.1. Indarkeria psikologikoaren pertzepzio maila


Nebiotza harremanetan izandako indarkeria psikologikoari buruzko nesken pertzepzioa neurtzeko VEC Eskala erabili dugu. Emaitzek diote nesken %44,7k indarkeriaren pertzepzio baxua dutela, %28,9k erdikoa eta bakarrik %26,3k dutela eskalan sartutako jokabideen indarkeriaren gaineko pertzepzio altua

7 Grafikoa. Izandako harreman motak. Zenbaki absolutuak.



Oraingoan, ez da ikusten desberdintasun handirik nesken eta mutilen artean, lehen gertatu den moduan. Itxura denez, gaur egun harremanik ez duten neska-mutilek lehen ere ez dute izan, edo izan badute ere informaltzat hartu dute.

8 Grafikoa. Indarkeria psikologikoaren nesken pertzepzio maila. Ehunekoak.



Emaitzok Bizkaiko neskekin aurretik egindako ikerketan lortutako emaitzen

antzekoak dira. Beraz, ondorio bera baieztatu dezakegu:

Ondarroan eta Markina-Xemeinen bizi diren 15-18 urteko nesken %25ek sumatzen dute Eskalan proposatutako jokabideak maitasun harremanetan mutilek euren aurka eragindako indarkeria psikologikoaren erak direla.

#### 4.1.2. Indarkeriaren dimentsioa: nesken pertzepzioa

Eskalan sartutako jokabide guztiak konstruktua beraren zati dira: "indarkeria psikologia". Konstruktua indarkeriazko 10 kategoria edo tipologia ditu. Baina, nesken pertzepzioak konstruktua teorikoak baino ñabardura gutxiago ditu, eta jokabideak hiru faktoretan edo "indarkeria motatan" batu dituzte<sup>4</sup>.

##### 1 dimentsioa. Mespretxua eta derrigortzea


Neskek sumatzen duten lehen indarkeria mota mespretxuari eta derrigortzeari lotuta dago. Izan ere, neskek

gehien sumatzen duten indarkeria mota da.

· **Identifikazioa** dela eta, nesken **%86,3k** uste du faktore horretan batutako jokabideak indarkeria psikologikoa direla.

· **Intentsitateari** buruz, jokabideei **3,48ko** larritasun maila eman diete batez beste<sup>5</sup>.

9 Grafikoa. Neskek sumatzen dituzten indarkeria motak, intentsitate mailan.



<sup>4</sup> Faktoreak Azterketa Faktorial Arakatzaillearen emaitza izan ziren, Osagai Nagusien eta Varimax Errotazioaren bitartez lortutakoak. Azterketaren emaitzak bariantzaren %64,951 azaltzen du, 0,933ko KMO indizearekin, eta Bartlett frogan 0,000ko esangurarekin. Guztia kontuan izanda, interbide faktorial ontzat har dezakegu

<sup>5</sup> "Indarkeria mailak" indarkeria mailaren eskalan egindako mailaketa du erreferentzia; 1 "ez da larria" da, 2 "larritasun gutxiago", 3 "erdiko larritasuna", 4 "larria" eta 5 "oso larria".

Neskek lehen dimentsio horretan batu dituzte mespretxuari eta derrigortzeari lotutako VEC eskalako itemak:

1 Taula. “Mespretxua eta derrigortzea” dimentsioan neskek sumatu dituzten jokabideak

| Item zb        | MESPRETUXUA ETA DERRIGORTZEA  | Indarkeria maila (0-5) | BAI %        |
|----------------|---|------------------------|--------------|
| 5              | Ez du zu lagunekin elkartzerik nahi   | 3,67                   | 89,5         |
| 9              | <b>Burla egiten dizu eta, horretarako, min handia ematen dizuten kontuez baliatzen da</b>   | <b>4,27</b>            | <b>92,8</b>  |
| 20             | Harremanaren arauak inposatzen ditu (ateratzeko egunak, ordutegiak irteera motak, etab.)  | 3,31                   | 85           |
| 18             | <b>Berak nahi duena egiten ez baduzu, utzi egingo zaituela esaten dizu mehatxatzeko</b>   | <b>4,07</b>            | <b>90,2</b>  |
| 16             | Emakume guztiei buruz gaizki esaka ibiltzen da, baita burlaka ere   | 3,23                   | 83,7         |
| 12             | Antigoalekoa zarela dio, zure sentipenak zalantzan jartzen ditu edo kritikatzan zaitu berarekin sexu harremanik nahi ez baduzu                                  | 3,65                   | 88,2         |
| 10             | Ez ditu bere hutsegiteak onartzen, eta inoiz ez du barkamenik eskatzen  | 2,57                   | 75,8         |
| 8              | Zure itxura, janzkera edo pentsaera kritikatzan du  | 2,92                   | 84,3         |
| 17             | Zure objektu pertsonalak (zorroa, agenda, eta abar) arakatzen ditu baimen barik   | 3,36                   | 87,6         |
| 22             | Lotsarazten zaituzten gauzez hitz egiten du, zelan sentiarazten zaituzten badaki ere  | 3,07                   | 88,9         |
| 24             | <b>Momenturen batean harremana eten bazenuten, mehatxatu egiten zintuen berarekin itzultzeko, eta berarekin itzuli ezean zerbait egingo zizula esaten zizun</b> | <b>4,19</b>            | <b>83,7</b>  |
| <b>GUZTIRA</b> |   | <b>3,48</b>            | <b>86,33</b> |

Horrela, egiaztatu dugu neskek multzo berean sartzen dituztela burla, mespretxua, harremanaren edo lagunaren arauen inposizioa, derrigortzeak, presio sexuala, kritika eta kontrola moduko jokabideak.

Era berean, indarkeria maila horretan daude, nesken ustez, indarkeriazkoenak diren 3 jokabideak, hau da, burla egitea eta min ematen dioten gauzak esatea, zer edo zer egingo diola berarekin bueltatzen ez bada esatea edo berak agindutakoa egiten ez badu laga egingo duela esatea. Hirurak zuzeneko eta ageriko indarkeriaren adierazleak dira, eta, ondorioz, ez dago zailtasun handirik indarkeria moduan sumatzeko.

Baina, nahiz eta ondoen sumatutako indarkeriazko jokabide multzoa izan, hausnarketa taldeetan neskek jokabideon gainean emandako argudioak era askotakoak dira, eta ez dira hasiera batean iruditu daitezkeen bezain zorrotzak.

- Neska gehienak indarkeriazkotzat du, adibidez, bikotekideak lagunekin egoten ez lagatzea, eta argi du lagunaren harremana mantentzearen garrantzia. Baina, batzuetan, jokabide hori justifikatu egiten da:

- *“benetan eragin txarra badira”*
- *“agian, zurekin arduratzen delako esaten dizu” (2MN)<sup>6</sup>*

Hala eta guztiz ere, neska batzuei ondo iruditzen zaizkie horrelako jokabideak, eta babes “paternalista” hori maitasunaren seinale dela diote. Eta, nahiz eta eurek sumatu ez, argudioak autoritatea bikotekideari eman diotela dakar, uste dutelako mutilak hobeto dakiela zein lagun komeni zaion. Beraz, ez dute jokabidea kontroltzat hartzen, bikotekideak bere onerako ematen dion aholkutzat baino.

- Jokabideak indarkeriazkoak diren ala ez zehazteko orduan, neska gehienak jokabidearen “sarritasunaren” irizpidea erabiltzen du erantzuteko:

*“Zenbat bider esaten duenaren arabera” (3MN)*

*“Behin bakarrik esaten badu, ez, baina sarritan esaten badizu, tontoa izan behar duzu beti jaramon egiteko” (5ON)*

*“Ez lagatzea behingoa bada, ez da indarkeria” (5ON)*

*“Behin edo hiru bider ez da indarkeria, baina gehiagotan...” (3MN)*

Sarritasunaren irizpidea erabilgarria izaten da inguruabarrak sortutako noizbehinkako jokabideak eta jokatzeko patroiak desberdintzeko. Baina, dirudienez, neskek ez dute hain argi

<sup>6</sup> Siglak taldeen identifikazioa dira, irizpide hauen araberakoa: talde zenbakia, herria, M(Markina-Xemein)/O(Ondarroa) eta sexua N(neska)/M(mutilak).



desberdinak direnik. Izan ere, euren argudioetan diote ezin direla “rallatu” edozein jokabide “normal” indarkeriazkoa dela esaten, eta arduratu beharra izango dela bakarrik sarritan ematen bada.

Arazoa da denbora pasatzeak neskaren erantzuteko patroia egituratu ere egin dezakeela, eta larriena, justifikazioa mutilaren inguruabarretan edo izaeran bilatzeko dinamikak jokabideekiko tolerantzia handitu dezakeela.

- Nesken diskurtsoan topatutako beste alor bat testuinguruaren eta mezuaren tonuaren behin eta berriroko ebaluazioa da, “zelan esaten didan, zelako asmoarekin, zein egoeratan...” Beraz, neskek testuinguruko irizpideak erabiltzen dituzte indarkeriaren identifikazioa gutxitzeko.

Jokabideok testuinguruan kokatzea garrantzitsua bada ere, neskek hainbeste arrazoi topatu beharrak “iparra galtzea” eta jokabideak noizean behin onartzea eragin diezaieke. Izan ere, jokabideek indarkeriarekiko tolerantzia eta normalizazioa sortzen dute:

*“Zelan esaten dizunaren arabera, derrigortu nahian badabil, bai, bestela, ez da ezer gertatzen” (3MN)*  
*“Bakarrik iritzia ematen badu, ez da indarkeria, derrigortzen bazaitu, bai” (2MN)*

*“Batzuetan amore ematen duzu, ikusi egin behar zer den, oso maite-minduta bazaude...” (1MN)*

*“Zelan esaten dizunaren, mutila zein denaren arabera...” (1MN)*

*“Komentarioaren arabera” (3MN)*

*“Txiste bat ez da indarkeria, olgetan badabil eta ondo kontatzen badu...baina asmo txarrarekin kontatzen badu, indarkeria da” (3MN)*

Asmoak bilatzeak berriro ere nesken esku uzten du mutilen jokabidearen ebaluazioa. Hori dela eta, euren burua zaintzea baztertu eta garrantzi handiagoa ematen diote mutilak egiten duenari eurek sumatzen dutenari baino, eta ohitu egiten dira sentsazioei eta sentimenduei jaramonik ez egiten. Uste badu mutilak ez zuela minik emateko asmorik, neskaren ezinegona huskeria da, eta bigarren mailan jartzen du, mekanismo horrek dakarren arriskuarekin.

- Azkenik, batzuetan, egon badago jokabide bat normalizat eta indarkeriazkotzat ez hartzea uste badute justifikatzeko “arrazoiak” daudela. Adibidez, 17 itemaren hausnarketan, “zure gauzak begiratzen ditu baimen barik”, taldeetako neska batzuek haxe zioten:

*“Kotilleatzeko arrazoiak baditu, ez da hain larria” (1MN)*

*“Agian adarrak jarri dizkiozula uste du.” (2MN)*

*“Hori egiten badu da uste duelako*

*engainatu egin duzula.”*

*“Neskak adarrak jarri badizkio, merezita du.” (2MN)*

*“Neskaren jokabidearen arabera...” (7ON)*

*“Jeloskor egoteko arrazoiak ematen badizkiozu...” (7ON)*

*“Konfiantzarik ez izateko arrazoiak ematen badizkiozu...” (7ON)*

Horrela, mutilaren jokabidea, edo jokabiderik dagoenaren susmo hutsa, arrazoi bihurtu da, jokabidea azaltzeko erabiltzen duena. Ondorioz, neskak autoinkulpatu egiten dira, errua euren buruari botatzen diote. Era batera edo bestera jokatzeko badute (“neska onak edo neska txarrak” badira), justifikagarria da mutila jeloskor jartzea edo zaintzea erabakitzea.

Berriro ere, neskek mutilengan jartzen dute eurak epaitzeko autoritatea eta egoki iruditzen zaien moduan jokatzeko: aholkuak eman, errieta egin edo zigortzea neskak jokabide “ez egokiak” baditu.

Laburbilduz, nahiz eta neskek sumatu mespretxua eta derrigortzea indarke-riazko jokabideak direla, eta bestelako jokabideak baino arinago sumatu, erabiltzen dituzten argudioek indarra galdu eragiten diote emaitzari.

Jokabideak testuinguruan kokatzeko

behin eta berriroko joerak, sarritasuna-  
ren arabeko larritasuna emateak, mutilaren keinuan eta intonazioan oinarritzea asmoaren ebaluazioak eta era “ez egokian” jokatzeko badute zigortzeko ahalmena emateak sekulako arriskua dakarte neskaren seguritateko eta harremanean bere burua guztiz nortzeko.

*2 Dimentsioa. Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea.*

Eskalako jokabideak batzen dituen bigarren dimentsioa kontrola eta bestea bereganatzea da.

- **Identifikazioa** dela eta, nesken **%75,54k** (erdiko ehunekoa) uste du faktore honetan batutako jokabideak **indarkeria psikologikoa direla**.

- **Intentsitatea** baloratzean, jokabideei **2,65eko** larritasun maila ematen diete batez beste.

Neskek VEC eskalako item hauek sartu dituzte dimentsio horren multzoan:

2 Taula. Neskek sumatutako jokabideak  
 "harremanen kontrola eta bestea  
 bereganatzea" dimentsioan

| Item zb        | Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea   | Indarkeria maila (0-5) | BAI %        |
|----------------|---|------------------------|--------------|
| 3              | Egiten duzun guztia jakin nahi du, non zauden edo norekin zauden berarekin ez zaudenean         | 2,60                   | 77,1         |
| 7              | Azkenaldian, ibili ohi zaren lekuetan agertzen da abisatu gabe                                  | 1,98                   | 60,8         |
| 2              | Janzteko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esaten dizu                                  | 2,84                   | 81,7         |
| 6              | Beste mutil batzuekin ikusten zaitu-enean, haiek liluratu eta erakarri nahian zabiltzala diotsu | 2,71                   | 74,5         |
| 1              | Norekin irten zaitezkeen eta norekin ez esaten dizu   | 3,26                   | 87,6         |
| 4              | Zure telefono deiak eta mezuak, baita posta elektronikoa ere, arakatzen ditu                    | 3,29                   | 86,3         |
| 19             | Telefonoz deitzen badizute jeloskor jartzen da  | 1,91                   | 60,8         |
| <b>GUZTIRA</b> |   | <b>2,65</b>            | <b>75,54</b> |

Eskalaren bigarren dimentsioan jokabide hauek daude: zeloak, zelan jantzi behar duen esatea, zer egiten duen edo zeinekin dagoen zaintzea, deien kontrola eta zaintza... Denek zerikusi estua dute kontrolatzeko eta bestea menderatzeko harremanarekin.

Nesken ustean, bigarren dimentsioko

jokabide multzoak lehenengo dimentsioak baino larritasun baxuagoa du. Hona hemen neskek zelan azaltzen duten larritasunaren "erdiko" puntuazioa, erantzunen zergatia hobeto ulertzeko.

- Neskek, sarritan, nahastu egiten dituzte kontrolatzeko jokabideak eta

harremaneko bestelako alorrak. Horrela, kontrolari "garrantzia kentzen diote". Zentzu horretan, kasu batzuetan, onartu egiten dute mutilek nesken berezko eremu intimoan sartzea, bikote harremana horixe delako, bien eremuen fusioa, dena partekatu behar den eremua. Esaterako, neska batzuek zioten bikotean konfiantzarik badago, ez dagoela "zertan sekreturik izan". Galdetu zitzaientean ea lagako zieten mutilei euren mugikorra begiratzen edo pasahitza emango zieten, hauxe erantzun zuten:

*"Nik mutilagunari emango nioke bai mugikorreko pasahitza" (3 N)*

*"Emango nioke, berarekin konfiantza badut eta eskatzeko emandako arrazoiak egokiak badira" (1MN)*

*"Ez dit ardurarik, ez dut ezer ezkutatzeko, nik neuk begiratu egiten dizkiot; beraz, berak ere neureak ikus ditzake." (5ON)*

*"Eskatu dizulako bada eta biok eginez gero, bata bestearen mugikorra begiratzuz gero, orduan bai." (7ON)*

*"Kontuan izango nuke zein den, orduan lagako nioke mugikorra, konfiantzarik badago..." (7ON)*

Era berean, neska batzuek ulertzen dute mutilen kontrolatzeko nahia, (zer egiten duten, zeinekin dauden) ez dela

kontrolatzeko nahia, arduratzeko nahia baino.

*"Agian da arduratu egiten delako egiten duzunaz, ardura hutsa izan daiteke.." (2MN)*

Edo eurei "laguntzeko" ardura:

*"Zure onerako esaten badizu, ez da indarkeria." (5ON)*

*"Zure lagunek kalte egiten dizutela uste badu, eragin txarra direla .." (2MN)*

Edota, lehentxoago esan den moduan, zerikusi du mutilak komentarioa zelan esaten duenarekin:

*"Zelan esaten duenaren arabera, zein asmorekin." (4ON)*

*"Zelan esaten dizunaren arabera." (7ON)*

Bestalde, atzera ere, neskek euren buruari botatzen diote errua euren bikotekideen jokabideak kontrolatze-koak edo jeloskorrek direnean.

*"Gona motza badaroazu, eta esaten badizu besteek pentsatuko dutela puta zarela, zure onerako esan dezake, agian zu ez zarelako konturatu." (3MN)*

*"Adarrak jarri badizkiot, normala da ni gehiago kontrolatzea." (7ON)*

*"Arrazoiak baditu..."*

*"Arrazoiak baditu, munduko arrazoi*

*guztia du jeloskor egoteko.” (5ON)  
“Edozergatik jeloskor jartzen bada,  
indarkeria da, baina jeloskor egoteko  
arrazoiak ematen badizkiozu, ez.”  
(4ON)*

*“Zeu zelakoa zarenaren arabera,  
bestearekin ligatzen bazabiltza...”  
(1MN)*

*“Probokatzen ez dabilen neska  
normala bada...” (7ON)*

Horrela, neskek bikotekidearen jokabide jeloskorra eta kontrolatzekoa justifikatzeko, euren jokabideetan bilatzen dituzte arrazoiak, eta betikotu egiten dute honako eskema sexista: “zer edo zer egin du neskak”, mutilak neska kontrolatu beharra izateko.

Azkenik, zeloak direla eta, argudio makalak daude, nesken gehingoak ez dakielako zehazten zeloak noiz diren indarkeriaren seinale edo noiz gehiegizkoak. Ez dakite identifikatzen zeloan azpian dagoen bestearen jabetza izateko nahia, eta uste dute zeloak arduraren eta maitasunaren seinale direla.

*“Agian egia da, (koketeatzen)  
ikusten bazaitu eta ez bada jeloskor  
jartzen, tontoa da”. (5ON)*

*“Normala da jeloskor jartzea,  
horrek esan nahi du ardura diozula.” (5ON)*

*“Agian gehiegi maite zaituelako da,*

*jeloskor jartzen da eta beldurra dio  
zu galtzeari, hori ez da indarkeria.”  
(5ON)*

*“Ez da indarkeria, neu galtzeko  
beldurra da.” (3MN)*

Dimentsio horretako jokabideak erdiko larritasuna dutela diote neskek, baina berriro ere, nesken argudioekin indarra galtzen dute. Uste dute bestearen bizitzan sartzeko jokabideak berdin jokatuta konpontzen direla (“berak egiten badu, neuk ere bai”) Horrela jokatzek berdintasun faltsua sortzen du eta bikote harremanaren betiko eredia ez da zalantzan jartzen (fusioa eta eremu propiorik eza).

Gainera, oraindik ere sarritan pentsatzen da erantzun jeloskorrak maitasunaren seinale direla, eta pozik egotekoa dela. Harremanen kontrola eta bestearen jabetza izatea sumatu egiten dituzte eta salatu ere bai, baina apur bat sakontzen denean, argi ikusten da neskek jokabide horiek gauzatzeko eginbeharra ematen dietela mutilei. Nesken lana da mutilek “eskua gehiegirik ez erabiltzea”, hau da, mutilei arrazoirik ez ematea, nahi eta nahi ez, neska moduz zigortzeko beharrik ez izateko.

3 dimentsioa. Abusu emozionala

Eskalako azken dimentsioa abusu emozionalari eta indiferentzia afektiboari dago lotuta. Kategoría horiek

indarkeria psikologikoaren beheko eskalan daude, eta gaitza egiten bazaie kontrolatzeko ageriko jokabideak indarkeriatzat hartzea, gaitzago egiten zaie hain era sotilak sumatzea.

- **Identifikazioa** dela eta, nesken **%62,4k** (erdiko ehunekoa) multzoan batutako jokabideak indarkeria psikologikoa direla uste du.

- **Intentsitatea** baloratzeko orduan, jokabideei **2,14ko** larritasun maila ematen diete batez beste.

Nesken ustez, indarkeriazko jokabidearen dimentsioarekin zerikusi duten itemak hauexek dira:

3 Taula. Neskek “abusu emozionala” dimentsioan sumatutako jokabideak

| Item zb        | Abusu emozionala  | Indarkeria maila (0-5) | BAI %       |
|----------------|---|------------------------|-------------|
| 13             | Ez da antisorgailuez arduratzen edo kezkatzen   | 2,94                   | 71,2        |
| <b>21</b>      | <b>Egunean 10 bat dei galdu (edo mezu) baino gehiago egiten dizu</b>                                  | <b>0,95</b>            | <b>37,5</b> |
| 14             | Bere kabuz erabakitzen du kontsultatu barik edo zure iritzia eskatu barik                             | 2,62                   | <b>76,5</b> |
| 11             | Ez da hitzordura azaltzen inolako azalpenik eman gabe   | 2,14                   | 63,4        |
| 15             | Tranpak jarri dizkizu zenbateraino maite duzun jakiteko   | 2,08                   | 58,8        |
| 23             | Zure haserrealdiak ez ditu kontuan hartzen edo tontakeriatzat jotzen ditu                             | 2,82                   | 83          |
| <b>25</b>      | <b>Momenturen batean harremana eten bazenuten, berarekin itzultzeko esaten zizun behin eta berriz</b> | <b>1,49</b>            | 46,4        |
| <b>GUZTIRA</b> |   | <b>2,14</b>            | <b>62,4</b> |

Azpirarratzekoa da neskek dimentsioko jokabide askori 2,5eko indarkeria maila baino puntuazio baxuagoa eman dietela. Jokaeron arriskuaren pertzepzio txikia dute. Hain zuzen ere, sumatzeko gaitzen izan diren jokabide biak hauexek dira: **25a** (aldatu egingo dela esaten dizu, zu berarekin bueltatzeko), nesken %49,7rentzat ez da indarkeriazkoa eta **21a** (egunero 10 dei galdu eta mezu baino gehiago egiten dizkizu), nesken %62,1ak ez du uste indarkeria denik.

Beraz, indarkeria pasiboarekin zerikusi duten jokabideak, indiferentzia, manipulazio emozionala, ardura eza... ez dituzte erraz sumatzen eta ez dute uste gehiegizko eta indarkeriazko jokabideak direnik.

Batzuetan, garrantzia kentzen diete jokabideoi (ukatu egiten dute indarkeria direnik), nahiz eta zergatia azaltzeko argudiorik izan ez:

*“Ez lidake ardurarik izango.” (5ON)*

*“Bera ez bada arduratzen, neu ere ez.” (5ON)*

*“Zeu arduratu eta listo, ez da ezer gertatzen.” (2MN)*

*“Ez nioke indarkeria deituko.” (2MN)*

*“Hori egiten badu, egoista delako da, ez biolentoa delako.” (3MN)*

Atzera ere jokabidearen sarritasunaren argudioa erabiltzen dute indarkeriazkoa den ala ez jakiteko:

*“Behingoa bada, ez da larria, behin baino gehiagotan bada, azalpena eman behar dizu derrigorrez.” (6ON)*

*“Behingoa onartzekoa da.” (6ON)*

*“Behin egiten badizu bakarrik...” (7ON, 2MN)*

*“Behin, hiru bider, ...ez da ezer gertatzen, gehiagotan bada, bai.” (5ON)*

Jokabidea erlatibizatzen edo arrazoiak bilatzeko, honakoak diote:

*“ilusioa egin diezazuke dei galduak egiteak, zugan pentsatzen dagoela esan nahi duelako.” (1MN)*

*“Mezuetan zer idazten dizunaren arabera.” (1MN)*

*“Zertarako deitzen dizunaren arabera” (2MN y 4ON)*

*“Agian aspertuta dagoelako egiten du, nik ere idatz ditzaket 10 mezu egunean.” (5ON)*

*“Egiten dizunaren arabera, zein tranpa denaren arabera ...” (1MN, 5ON, 6ON)*

Azpirarratzekoak dira nesken azalpenak eskalan gutxien sumatutako jokabideak direla eta.

Hala, 21 itemean dagoen jokabidea (egunero 10 dei galdu eta mezu baino

gehiago egiten dizkizu) ez zuten indarkeriatzat hartu eztabaidako taldeetan:

*“Hori astuna izatea da.” (3MN, 4ON, 7ON)*

*“Hori ez da indarkeria, maite zaituela eta zurekin gogoratzen dela baino.” (3MN)*

*“Hori maite zaituelako da”(3MN)*

25 itemari buruz, zalantza ugari dituzte aztertutako taldeetakoek, eta ez dute dakarren engainua eta gezurra sumatzen:

*“Maiteminduta badago, normala da hori egitea.” (1MN)*

*“Azkenean, pelmada ematen dizu, baina ez da hainbesterako, .” (1MN)*

*“Onera esaten badizu...” (3MN)*

*“Izan daiteke benetan maite izatea eta aldatu ahal izatea.” (4ON)*

Azkenik, euren hausnarketetan, emaitza kezagarri bi daude, mezu sexistekin zerikusi dutenak. Izan ere, sexu harremanetan ardura sexuala neskena dela uste dute:

*“Zure ardura da, azken finean, zeu zara haurdun geldi zaitzkeena.” (3MN)*

*“Berak ez du zertan arduratu ni*

*haurdun geldituz gero, neure marroia izango zelako, neuk pasatu beharko dut, bere ardura izango da benetan maite banau” (5ON)*

*“Haurdun gelditzen bazara, arazoa zeurea da, zeuk izango duzu eta tuntuxa.” (2MN)*

Ondarroako eta Markina-Xemeingo neskei iruditzen zaie euren bikoteki-deen abusu emozionala ez dela gai larria; ez die molestutzen, eta gehien erabiltzen duten argudioa da holakoe-tan dabilena astuna eta egoista dela. Mutilek sexu harremanetan ardurarik ez izatea justifikatu eta onartu egiten dute, horrelaxe delakoan, haurdun geratzearen arduradun bakarrak eurak, neskak, direlako. Eta argudio horiez gain, talde batzuetan “emakumeak gehiegi kexatzen direla” esan zuten:

*“Neskok inuzentekeriengatik haserretzen gara, eta, sarritan, ez dakigu ezta zergatik ere.” (5ON)<sup>7</sup>*

Lehen esan dugun moduan, eztabaida taldeetan emandako iritzien logika eta galdera sorta anonimoan jokabideak identifikatzeko eta mailakatzeko erabili duten logika ez datoz bat. Nesketan, ikus dezakegu pertzepzio maila altuagoa dela Eskalan, eta taldeetan,

<sup>7</sup> 4.3 atalean, nesken eta mutilen emaitzak konparatu egingo dira, euren azalpenen desberdintasunak eta antzekotasunak topatzeko.



aipatutako iritzien aurkako argudioek ez dutela indar handirik.

Esan dezakegu indarkeria zer den argi dutenen %25a, besteen aurrean, taldeetan, isildu egiten dela edo argudio eskasak dituela. Era berean, pentsa dezakegu, adina kontuan hartuta, pertzepzioa argi dutela, baina, argudioak emateko ahalmena ez dutela oraindik oso garatuta. Eta, azkenik, eta nahiz eta iritzi ezkorra izan, pentsa dezakegu neskek argudio sexistak dituztela, euren erantzunak politikoki zuzenak badira ere.

Hipotesiak hipotesi, azpimarratu nahi dugu kezkarria dela Ondarroako eta Markina-Xemeingo 15-18 urteko neska gehienak mutilek bikote harremanetan eragiten dieten indarkeriaren pertzepzio subjektiboa honakoa izatea: ez dela hain larria, garrantzia kentzeko beste era batera deitu daitekeela (astuna izatea, egoismoa), ez diela molestatzen, eta jarraitu egingo dutela horrela jokatzen neskak “arrazoiak” ematen badizkio.

Gainera, uste dute mutilek autoritatea dutela jokabide egokiagoak proposatzeko, neskak ez direnean konturatzen egiten dutena ez dela egokia. Boterea delegatzea normalizat dute, eta arduratuko lirateke bakarrik inposatzea izango balitz, bestela, uste

dutelako euren onerako egiten dutela, maite dutelako, eta eurentzat onena nahi dutelako.


## 4.2. Mutilen emaitza nagusiak

### 4.2.1. Indarkeria psikologikoaren pertzepzioa

Neskekin egin dugun moduan, nobio-tza harremanetan eragindako indarkeriari buruzko mutilen pertzepzio maila lor dezakegu, mutilentzako VE-m Eskalaren baremazioa erabiliz.

Oraingoan, ikusi dugu mutilen erdiak indarkeriaren erdiko puntuazioa zuela. %24,32k indarkeriaren pertzepzio baxua du, %50,67k erdikoa eta %25ak eskalako jokabideen gaineko pertzepzio altua du.

10 Grafikoa. Indarkeria psikologikoaren mutilen pertzepzio maila. Ehunekoak.



Hasierako emaitza horrek ondorio nagusia dakar:

Ondarroako eta Markina-Xemeingo 15-18 urteko mutilek bikote harremanetan eragin dezaketen indarkeriaren erdiko pertzepzioa dute.


#### 4.2.2. Indarkeriaren dimentsioak: mutilek zelan sumatzen dituzten

Aurretik esan dugun moduan, VE-m eskalan indarkeria fisikoari eta sexualari buruzko itemak erabili ziren, uste dugulako horrelako indarkeriek pertzepzioan dimentsio psikologikoa ere badutela.

Horri lotuta, gogoratu behar dugu mutilen erantzunak VEC eskalako tresna estatistikoekin aztertu direla eta topatu dugu itemen 11 kategoriak 4 dimentsioetan sumatzen dituztela, 3 indarkeria psikologikoari buruzkoak eta bat ageriko indarkeriarekin zerikusi duena (fisikoa edo sexuala)

11 Grafikoan datorren legez, mutilen pertzepzioa altuago da ageriko indarkerian; gainerako dimentsioetako indarkeria mailek ez dute alde handirik.

11 Grafikoa. Mutilek sumatzen dituzten indarkeria motak, intentsitate mailan.



#### 1 Dimentsioa: Ageriko indarkeria

Mutilen pertzepzioaren arabera sortutako lehen dimentsioak ageriko indarkeriarekin du zerikusi.

· **Identifikazioa** dela eta, **%91,83k** (erdiko ehunekoa) uste du faktore horretan batutako jokabideak indarkeria direla.

· Nahiz eta mutil gehienek pentsatu jokabideok indarkeria direla, eman zieten intentsitate maila, ostera, ez da goren, **3,86koa** baino. Ez da 4 mailara ailegatzeko, (jokabideak larriak dira).

Horrek esan nahi du mutil gehienek, hasieratik indarkeriazko jokabideak direla uste badute ere, eta dimentsio horretan indarkeria fisikoari eta indarkeria sexual zuzenari lotutako jokabideak badaude ere, ez dietela puntuazio

gorenik ematen, ez dutela pentsatzen oso jokabide larriak direnik.

Hauexek dira ageriko indarkeriaren dimentsioan mutilek sartzen dituzten itemak:

*4 Taula. Mutilek “ageriko indarkeria” dimentsioan sumatutako jokabideak*

| Item zb        | Ageriko indarkeria   | Indarkeria maila (0-5) | BAI %        |
|----------------|--|------------------------|--------------|
| 24             | <b>Sexu harremanak izateko derrigortzea</b>  | <b>4,39</b>            | <b>94,5</b>  |
| 14             | <b>Uzten bazaitu bizimodu jasanezina egitearekin mehatxatu</b>   | <b>4,12</b>            | <b>93,2</b>  |
| 05             | <b>Mehatxatzea ez duenean egiten nahi duzuna edo kontra egiten dizunean</b>  | <b>4,06</b>            | <b>93,2</b>  |
| 21             | Eztabaida batean gauzak jo, bota edo apurtu  | 3,91                   | 90,5         |
| 19             | <b>Berak egin nahi ez dituen edo bere gustukoak ez diren sexu-jokoetara behartu</b>                                      | <b>4,06</b>            | <b>95,2</b>  |
| 16             | Berari barre egitea, beste neska batzuekin konparatzea, gauzak esatea jakinda lotsatu egingo dela edo min emango diotela | 3,61                   | 95,2         |
| 11             | Ez badu nahi sexu-harremanik izan zurekin, kritikatzeta eta zalantzan jartzea maite zaituenik                            | 3,14                   | 84,4         |
| 20             | Bere lagunak ez ikusteko esatea  | 3,63                   | 88,5         |
| <b>GUZTIRA</b> |  | <b>3,86</b>            | <b>91,83</b> |

Taulan argi ikusten dira mutilentzat bortitzenak diren 4 itemak, kontuan izanda baiezko erantzunen ehunekoa (%90etik gora lauretan) eta jokabideoi ematen dieten indarkeria maila (4 baino altuagoak). Gehien sumatutako lau jokabideak hauexek dira: "Sexu harremanak izatera derrigortzea", "Bizimodu jasanezina eragingo diozula esatea lagatzen bazaitu", "Zuk nahi duzuna egiten ez duenean mehatxatzea" eta "Gustuko ez dituen edo egin nahi ez dituen joku sexualak inposatzea".

Dimentsioari buruz, interesgarria da hausnarketa taldeetan mutilek botatako iritziak jasotzea.

Horrela, talde gehienek argi eta garbi diote ez dagoela bikotekidea mehatxatzeko edo presionatzeko ezelako eskubiderik:

*"Besteen erabakiak errespetatu egin behar dira, gureak errespetatzea nahi badugu". (8OM)*

*"Jakin behar dugu ematen eta hartzen.", "Neskak arrazoia duenean, onartzen jakin behar da", "joditzen eta aguantatzen ere jakin beharra dago". (9OM)*

*"Hori egiten baduzu, maite ez duzulako da", (14MM)*

*"Baten bat zer edo zer egitera derrigortzea txarto dago, egin beharreko planak negoziatu egingo ditugu", "bikotekidearen erabakiak errespetatu egin behar dira". (13MM)*

*"Bera ez da nire gatibua". (16MC)*

*"Ez duzu eskubiderik inori horrela minik emateko", "konparatzea txarto dago, bakoitza den modukoa da", "baten bat gustuko baduzu, den modukoa delako duzu gustuko". (14MM)*

*"Inor ezin daiteke derrigortu sexua egitera, ez badu nahi, onartu egin behar da", "sexua konfiantza gehiagorekin etorriko da", (8OM)*

*"Bere borondatea errespetatu behar da, baldintza barik" (8OM)*  
*"ezetza ezetza da", "ez bada errespetatzen, bortxaketa da"*

Adierazpenok iritzi landua eta sendoa erakusten dute, indarkeria zer den jakin badakitelako, eta salatu egiten dute, iritzieta behintzat, indarkeria erabiltzea.

Mutilen hausnarketen kontrapuntu bakarrak zerikusi du "proposatu" eta "inposatu" berben arteko mugarekin:

*"Eskatu, eska daiteke, behin baino gehiagotan ere, baina ezin daiteke inor mehatxatu." (8OM)*

*"Saia zaitzke zurekin bueltatzeko, baina ez mehatxuen bidez", (15MS)*

*"Ikusten badut ez dela konturatzen zer edo zer txarto doala, esan egin dezaket, baina inposatu ez. ". (8OM)*

*"Iritzia eman ahal bada" (16MC)*

*"Saiatzearen eta derrigortzearen artean muga dago". (8OM)*

*"Konbenzitzen saia gaitzke, baina ezin dezakegu derrigortu edota inposatu" (9OM)*

*"Derrigortu, sekula ere ez, galdetu*

*bai”, “saia zaitezke, baina ezetza ezetza da”. (12MM)*

*“Ez da txarra pixka bat ganean egotea guapa jartzeko, baina horretarako lotsatu eragin beharrik ez dago” (9OM)*

“Proposatu bai baina inposatu ez” ideia Eskalako dimentsio horren itemen argudio askotan agertzen da. Beraz, mutilek argi dute, teoriarik behintzat, mugarik ezin dezaketela gaititu, eta gaitiduz gero, bikotekidearenganako indarkeria eragiten dabiltzala.

Muga aitortu arren, mutilek uste dute bikotekidea konbentzitzeko eskubidea dutela, zer edo zer egin dezaten edo jokabide batzuk bazter ditzaten. Horretarako, era sotilak erabiltzen dituzte: “saiatu”, “proposatu”, “iritzia eman”, edo “konbentzitzen saiatu”.

Hala, iritzien inposizioak aurkako maila altua du eta argudio ugari dituzte aurrekoa indartzeko. Izan ere, inposizioa sexuala denean, bortxaketa dela salatzen dute. Argudioek argi lagatzen dute mutilek jakin badakitela noiz dabiltzan txarto eta noiz duten inposatzeko asmoa. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da puntuazioak argudioak baino leunagoak direla, 5 puntuazioren parean barik (oso jokabide larriak), 4aren parean dabiltzalako. Hain zuzen ere, erantzunen batez besteko emaitza 4,39 da. Zer ote da? Anonimatua argudio sendoa malgutzea ahalbidertzen duela?

Bestalde, bikotekidearen lagunei buruz hausnartzean, (lagunekin ez egotea esatea), nesketan gertatzen zen legez, justifikazio “paternalista” dute:

*“Lagun onak ez badira, esan daiteke”, “jende nahastosoarekin badabil, esatea lagun baten eginbeharra da” (9OM, 13MM, 14MM)*

Indarkeria sexualari buruz, paternalismoa komentario batzuetan agertzen da, mutilek ustez, neska harremanean interesatua badago, garrantzizkoa delako sexu harremanak izatea:

*“Luzaroan bagaude harreman barik, azalpenak eska ditzaket, baina ezin dezaket ezer inposatu” (9OM)*

*“Ez badu nahi, bale, baina nik azalpenak behar ditut, ez delako normala nahi ez izatea” (15MS)*

Azkenik, azpimarratzekoak dira mutilek indarkeria fisikoaren ganean eman dako azalpenak. Nahiz eta talde gehienek esan “eztabaidan gauzak jotzeak edo botatzekak” beldurra eragiten diela neskei eta “kontrolatzen jakin behar dela”, egon egon ziren azalpen batzuk indarkeria tentsioa botatzeko erabiltzeari buruzkoak:

*“Ez da zuzena, baina ostia txarra botatzeko balio badu, agian bai”*

*“Barrua arintzeko eta zure rollora egiten baduzu, inor beldurtu barik, ez du zertan txarra izan”. (8OM)*

*“Moskeo handia badago, momentuko beroaldian hobe da paretari*

*ukabilkada ematea neskari saka egitea baino”, “neskak ez jotzeko terapia legez erabiltzen bada, ondo” (90M)*

*“Ona ez da, baina barruko amorrua botatzeko balio du” (100M)*

*“Ostia txarra ez da indarkeria” (12MM)*

**2 Dimentsioa. Mespretxua eta manipulazioa**

Mutilek eskalako jokabideak sumatu zituzten bigarren dimentsioa manipu-

lazioari, engainuari eta mespretxuari lotutakoa da.

- **Identifikazioa** dela eta, mutilen **%71,28k** (erdiko ehuneko) uste du faktore horretan batutako jokabideak indarkeria direla.

- **Intentsitateari** buruz, jokabide multzo horretan lortu zen batez besteko indarkeriaren maila **2,41era** jaitsi zen (erdiko larritasuna)

Mutilek dimentsioan batutako itemak hauek dira:

**4 Taula. Mutilek “ageriko indarkeria” dimentsioan sumatutako jokabideak**

| Item zb        | Mespretxua eta manipulazioa   | Indarkeria maila (0-5) | BAI %        |
|----------------|---|------------------------|--------------|
| 23             | Besteek begiratzea nahi duelako era probokagarrian janzten dela esatea                          | 1,32                   | 37,8         |
| 17             | Elkarrekin egin beharreko planak zeuk erabakitzea (zein egunetan irten, nora joan, ordu-tegiak) | 2,35                   | 79           |
| 25             | Zure akatsak ez onartzea edo barkamenik ez eskatzea   | 3,18                   | 87,1         |
| 22             | Besteek begiratzea nahi duelako era probokagarrian janzten dela esatea                          | 2,37                   | 73,6         |
| 15             | Zuen sexu harremanetan preserbatiborik ez erabiltzea behin eta berriz esan                      | 2,86                   | 78,9         |
| <b>GUZTIRA</b> |   | <b>2,41</b>            | <b>71,28</b> |

Aipatutako dimentsioa gutxien sumatzen dutena da. Bertan, era askotako jokabideak daude, eta merezi du ezagutzea mutilek taldeetan jokabideei buruz emandako azalpenak:

Manipulazioaren gainean, mutilek onartu egiten dute manipulatzeko zer edo zer lortzeko bestea engainatzea dela:

*“Gezurrak esatea atzera zurekin bueltatzeko ez dago ondo” “aldatu egingo zarela esatea dakizunean ez duzula aldatzeko asmorik ez dago ondo” (10OM)*

*“Gezurretan zabiltzalako, nahi duzun bakarra da zurekin bueltatzea” (11OM)*

*“Egin egin daiteke, baina gezurretan zabilta ez baduzu nahi aldatu”. (12MM)*

*“Neska zurekin bueltatzeko engainatzeko edo konbentzitzeko bada, hasierako egunetan balioko dizu, baina gero ez zara aldatuko, ez duzulako nahi aldatu” (15MS)*

*“Berarekin bueltatzeko gezurrak esatea da, txarto dago” (16MC)*

Baina, nahiz eta aitortu jokabidea gezurrak esatea eta engainatzea dela, batzuek justifikatu egiten dute erabiltzea:

*“Neskarekin bueltatzeko era izan daiteke”, “zilegi da pentsatzea eta esatea” (8OM)*

*“Normala da hori esatea, behintzat*

*berarekin bueltatzen saiatzeko” (9OM)*

*“Denak balio du berak gure ondoan jarrai dezan”, “zilegi da, eta lortzen baduzu, lortu duzu” (13MM)*

Bestalde, berriro ere “proposatu, ez inposatu” argudioa dugu, aurreko dimentsioan moduan:

*“Proposatu egin dezaket, baina inposatu ez”, “behin eta berriro esan dezaket, baina ezin dut derrigortu egitera”, “proposatu bai baina sekula ez bion partez erabaki” (8OM, 12MM, 13MM).*

Eta nesken artean ere agertu ziren ideia sexista bi ditugu. Batetik, mutil batzuek uste dute neskek “probokatu” egiten dutela euren jantzeko erarekin:

*“Puta baten moduan badao, esango diot beste era batera jantzeko” (10OM)*

*“Pixka bat irtena bada, arduratzenkoa da, baina ezin diot jantzeko erarik inposatu” (8OM)*

*“Gerta daiteke era probokatzailean jantzea besteentzat, eta hori ez dago ondo”, “horrela nirekin egoteko jantzen bada, ondo” (9OM)*

Mutil gehienek ez dute gustuko euren neskalagunak era probokatzailean jantzea, eta bikotekideen gaineko zer edo zelako “jabetza” adierazten dute, “neskarekin harro” daudelako edo “jarrera probokatzaileari” mugak jartzen dizkiotelako.

*“Zuk begiratzten diozu eta harro sentitzen zara, hori da nire neska” (12MM)*

*“Zertarako jantzi behar du probokatzaille nirekin badago?, nirekin egoteko ez du behar besterik bilatzerik” (13MM)*

Bestalde, atzera ere, “emakumeak gehiegi kexatzen dira” ideia agertzen da:

*“Batzuetan ez da hutsegiterik onartzen, ez delako egia”, (8OM)*

*“Egon badaude neska batzuk erraz haserretzen direnak, gauza normalengatik azalpenak eskatzen dabiltzanak beti” (9OM)*

Mespretxua eta manipulazioa, jokabide batzuk batzen dituen kategoria moduan, ez dute indarkeria fisikoa bezain arin baztertzen. Izan ere, mutil batzuek uste dute gezur batzuk zilegi direla neskalaguna berriro lortzeko.

Azpimarratzekoa da, oraingoan ere, mutilek argi dutela proposamenaren eta inposizioaren artean muga dagoela, baina arlo batzuetan, justifikatu egiten dute inposatzea, batez ere, neskek beste mutilekin duten harremanari buruz dabiltzanean.

Janzteko era dela eta, uste dute neskak apaintzen direla (edo probokatzaille janzten direla) mutilen

gustukoak izateko, ez euren buruarekin ondo sentitzeko. Hori dela eta, uste dute zilegi dela askatasun horri mugak jartzea, neskek lortu dutelako nahi zutena: mutilaguna izatea.

Eta, nahiz eta argi izan sexu harremaneko mugak, babesteko jokabideetan ardura izateko orduan, (preserbatiboa erabiltzea) ez dira hain zuzenak eta ez erabiltzeko ahaleginetan ibiltzea ez da hainbestarik salatzen.

Itxura denez, mutilek uste dute zilegi dela proposatzeko eskubidea izatea, agian, lortu egingo dutelako, eta esan eta esan ibiltzea eta gezurrak esatea ere zilegi ei da, “gerran eta maitasunean, denak balio duelako”.

### *3 Dimentsioa. Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea.*

Nesken multzoko antzeko dimentsioa dugu kontrolarekin zerikusi duena.

- **Identifikazioa** dela eta, mutilen **%74,85ak** (erdiko ehunekoak) uste du dimentsio horretako jokabideak indarkeria direla.
- **Intentsitateari** buruz, puntuazioa **2,52koa da** (erdiko larritasuna).

Mutilek kontrolaren dimentsioan sartu zituzten itemak hauexek dira:



6 Taula. Mutilek sumatutako jokabideak "Harremanen kontrola eta bestea bereganatzeko" dimentsioan

| Item zb        | Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea                                      | Indarkeria maila (0-5) | BAI %        |
|----------------|--|------------------------|--------------|
| 2              | Bere itxura edo pentsatzeko erarekin sartzea                                     | 2,66                   | 82,4         |
| 6              | Jantzeko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esatea                        | 2,06                   | 68,9         |
| 1              | Neskari esatea zeinekin irten behar duen eta zeinekin ez                         | 3,14                   | 86,4         |
| 7              | Bere zereginei uko egitea eskatzea, zenbat maite zaituen frogatzeko              | 2,5                    | 73,6         |
| 3              | Errieta egin beste mutilekin hitz egiten duenean ligatzen dabilela uste duzulako | 3.09                   | 85,8         |
| 4              | <b>Ez agertzea eta bakarrik lagatzea azalpenik eman barik</b>                    | <b>1,67</b>            | <b>52</b>    |
| <b>GUZTIRA</b> |  | <b>2,52</b>            | <b>74,85</b> |

Nesken jantzeko erari buruzko kontrola dela eta, argudioak aurrekoen antzekoak dira. Mutil gehienek diote neskek nahi duten moduan jantzeko askatasuna dutela eta diren modukoak izanda onartu behar dituztela. Orokorrean horrela pentsatzen badute ere, egon badaude salbuespen batzuk. Izan ere mutil batzuek justifikatu egiten dute komentarioren bat egitea, baina "aholku" legez:

*"Konfiantzarik badago, eska diezaiokezu guapa jartzeko" (90M)*

*"Iritzia berari emango diozu, jendaurrean ez, txarto sentitu eragin barik." (80M)*

*"Bakarrik gaudenean esan diezaioket gustuko dudan ala ez bere jantzeko era (13MM)*

*"Sexyegi jantzita badoa, normala da esatea", "ezin da kaka balitz moduan jantzi" (15MS)*

*"Parrandan gabiltzanean, eta beste neskekin konparatuz ez badago guapa, pentsa egin dezakegu, baina esan ez", "asteburua bada eta parrandara bagoaz, esan diezaioket"*

*txandala laga eta zer edo zer...janzteko(8OM)*

*"Aholku edo iritzi moduan esatea guapagoa egon daitekeela ez da txarra", (9OM)*

*"Estateko eraren arabera, aholkutzat har dezakezu", (14MM)*

Hala, mutilek erlatibizatu egiten dute jokabidearen larritasuna, testuinguruaren eta helburuaren arabera. Aholkatzea posible da, beharrezkoa eta baita lagungarri ere neskarentzat. Beste gauza bat da jokabidea inposatzea eta kontrolatzea nahi dutenean.

Kontrolatzeko bestelako jokabideen inguruan, ez dago azalpen berririk. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoak dira "errieta egitea uste duzulako beste mutilekin berba egiten duenean koketeatzen ibiltzen dela" izeneko jokabidea dela eta, erabilitako argudioak. Izan ere, mutil askok diote zeloak berez dituztela eta "jakin egin behar dutela irensten", baina beste batzuek zalantza gehiago dute zeloen gainean, eta testuingurua garrantzitsua dela diote:

*"Errietaryk ez diot egingo, baina testuinguru berezietan, haserretu bai egingo naizela.", "mutila ezaguna bada, ez da ezer gertatzen, baina ez bada, gehiago moskea naiteke. ", (8OM)*

*"Instititutuko jolastokian normala-goia da, parrandan gabiltzanean txarto ulertze gehiago sortzen dira", (9OM)*

*"Beste mutilekin probokatzen badabil, zer edo zer esan behar zaio" (10OM)*

*"Berba egitea ez da ligatzea, baina zelan berba egiten duenaren arabera. " (11OM)*

*"Gauzez, tiporen bati, geldik egoteko esan behar zaio" (12MM)*

*"Ezaguna bada, ez da ezer gertatzen, ez bada, haserretu egingo nintzateke" (13MM)*

*"Denak berotzen badabil....galdetu egin behar da, bakarrik berba", "ez baduzu gustuko bera horrela ibiltzea, laga eta listo" (16MC)*

Hala, mutilak euren zeloak azaldu nahian ibili ziren, esanez neskak "zer edo zer" egin badu zeloak probokatzen, eskubidea dutela "errieta egiteko". Aipatzekoa da aisialdirako tokietan sortzen den nahastea, testuinguru ez arautua eta ligatzeko eremu aproposa. Dirudienez, mutil batzuk ez dira ondo konpontzen horrelako eremuetan eta ez dakite zer egin euren zeloekin.

7 Taula. Mutilek sumatutako jokabideak “Jazarpena eta deskalifikazioak” dimentsioan

| Item zb        | Jazarpena eta deskalifikazioak   | Indarkeria maila (0-5) | BAI %        |
|----------------|--|------------------------|--------------|
| 23             | <b>Besteek begiratzea nahi duelako era probokagarrian janzten dela esatea</b>                  | <b>1,32</b>            | <b>37,8</b>  |
| 17             | Elkarrekin egin beharreko planak zeuk erabakitzea (zein egunetan irten, nora joan, ordutegiak) | 2,35                   | 79           |
| 25             | Zure akatsak ez onartzea edo barkamenik ez eskatzea  | 3,18                   | 87,1         |
| 22             | Besteek begiratzea nahi duelako era probokagarrian janzten dela esatea                         | 2,37                   | 73,6         |
| 15             | Zuen sexu harremanetan preserbatiborik ez erabiltzea behin eta berriz esan                     | 2,86                   | 78,9         |
| <b>GUZTIRA</b> |  | <b>2,41</b>            | <b>71,28</b> |

Dimentsio horretan jazarpinarekin zerikusi duten jokabideak daude: behin eta berriro deitzea, mezuen edo deien kontrola, neska dagoen tokira joatea zer egiten dagoen jakiteko...

Jokabideoi buruz, eztabaida taldeetan argudio gehienek nesken askatasuna defendatzen zuten, bakoitzaren eremuaren errespetua... baina argudioek salbuespen bi zeuzkaten.

Lehenengo salbuespena mutilek hartzen duten babesle paperaren ingurukoa da, egoerak arriskutsuak direla uste dutenean:

*“Gaua bada eta parrandan baga-biltza, zaintzen egon gaitzke, baina ez bere mugimenduak kontrolatzeko, etxera joan nahi badu edo dena ondo doala jakiteko”, “batzuetan lasaiago gelditzen naiz non dabilen jakinda”. (8OM)*  
*“Gaua bada edota edan badu, hurrean ibiliko naiz, etxera joan nahi badu edo zer edo zer behar badu, bestela, normalean, ez” (9OM)*

Bigarren salbuespenak neskaren fideltasunari buruzko zalantzeekin du zerikusi, batzuetan justifikatu egiten dute eta jokabide zaintzailea:

“Adarren susmorik badago, egia jakiteko bakarrik, egingo nuke (mezuak begiratuko nizkioke)” (13MM)

Azkenik, azpimarratzekoak dira emakumeei buruz berbetan hasten direnean egindako azalpen sexista bi.

“Emakumeei buruzko komentario txarrak egitea bere aurrean” indarkeriazko jokabidea zen ala ez eztabaidatu zutenean, errespetu eza txikiagotzeko saiakerak egon ziren. Emakumei buruzko komentarioak euren artean egiten badituzte, edo “olgetan” badira, ez ei da indarkeria:

*“Puntu bat arte olgetan ibil gaitzke”, “emakumeen aurrean ezin da horrelako komentariarik egin, txarto senti daitezke eta.”* (8OM)

*“Barre pixka bat egiteko bada, ez dago txarto”* (10OM)

*“Katxondeoan bada eta rollo onean bada, ez da ezer gertatzen”* (12MM)

*“tipei buruz olgetan ibiltzea ondo dago, baina ez euren aurrean”* (13MM)

Galdera sorta guztiko pertzepzio baxuena izan duen portaera dela eta, “Haserretzen denean jaramonik ez egitea edo esatea haserreak inuzentekeriak direla” (8), ideia baten nagusitasuna nahi dugu azpimarratu: “emakumeak gehiegi haserretzen dira”. Hori dela eta, justifikatu egiten dute jaramonik ez egitea:

*“Txapa ederra ematen dute haserretzen direnean”, “haserrea handia edo txikia den.”* (12MM)

*“Neskak gauza txikiengatik haserretzen dira, eta mutilak baino sarriago”, “egunero haserretzen bada, inuzentekeriengatik izango da”* (13MM)

*“Haserreak oso subjektiboak dira”* (16MC)

*“Haserre dabilenean, onena ezer ez esatea da”, “hobe da txapa aguantatu eta listo”* (12MM)

*“Zer edo zer serioa bada, onena pasando egitea da”* (10OM)

Eurentzat axolabakoa edo garrantzitsua izan, erantzuna beti bera da: jaramonik ez egitea. Antza denez, mutilek gaztetatik dute buruan zilegi dela emakumeen haserreei garrantzirik ez ematea. Argudioa guztiz matxista eta tradizionala da eta, dirudienez, gizon gazteagoen artean ere topa dezakegu, ezelako aldaketa barik.

Nahiz eta galderak harremanean sortutako egoeren edo gatazken ingurukoak izan, garrantzirik ez ematean, mutilek nesken esku lagatzen dute harremaneko arazoak konpontzea, nesken arazo pertsonalak direlakoan.

Jokatzeko patroia hori eten barik agertzen da harreman heterosexualetan: neskak bikotearen arazoak bizi eta konpondu egiten ditu (ahal duenean) bere egin dituelako, menpekotasun arazoak direla eta, mutilak bere esku laga dizkiolako. Bakarrik lasai daitezela, onena jaramonik ez

egitea da, ez du nirekin zerikusirik... horietan dira mutilek erabiltzen dituzten justifikazioak bikotearen gatazkak konpontzen ez ikasteko, toki bateratuetan eta esaldi sexistetan oinarritutako justifikazioak.

Eztabaida taldeei buruzko azken ekarpena Senegalgo mutilen iritzien ingurukoa da. Hasteko, esan behar dugu erabilitako argudioak hemengo mutilenen antzekoak direla, nahiz eta taldean denak Senegalekoak izan. Desberdintasun bakarra da ondo bereizten dutela jokabidea “neskalaguna” edo “andrea” izan. Hala, nobiotza harremanean errespetatu egiten dute emakumearen autonomia, hemengo mutilen antzeko iritziak eta hausnarketak dituzte. Baina, ezkontzari buruz dabiltzanean, menderatze, kontrol eta jabetza ideiak agertzen dira, harreman mota aldatu egin dela eta:

*“Neskalaguna bada, agian ez dago justifikatuta (zelan jantzi behar duen esatea) nahi duena egin dezakeelako, baina andreak ezkondu eta gero ez, ”, “neskalagunari iritzia eman diezaiokezu baina agindurik ez”*


*“Nire andrea bada, errespetatu egin behar nau”.*

*“Bakarrik elkarrekin badabiltza ez da normala (deiak kontrolatzea), baina ezkondu eta gero ez da ez sekreturik ez bizitza pribaturik izan behar, denak biona izan behar du”.* (15MS)

### 4.3. Nesken eta mutilen emaitzen konparazioa

Diagnostikoan erabilitako eskala biak (VEC eta VE-m), berdinak ez badira ere, antzekoak dira. Metodologiaren atalean esan genuen moduan, VE-m eskalak kontuan ditu, baita, indarkeria fisikoa eta sexuala. Hala eta guztiz ere, nesken eta mutilen puntuazioak alderagarriak dira, VE-m eskalako gainontzeko itemek hiru dimentsioen pertzepzioa ondorioztatu dutelako, VEC eskalan neskekin lortutakoena nahiko antzekoa. Guztira, jokabideen identifikazioan izandako emaitzak hauexek dira:

**12 Grafikoa. Indarkeria psikologikoaren nesken eta mutilen pertzepzio maila Ehunekoak.**




Nahiz eta neska gehienek indarkeriaren pertzepzio maila baxua izan (%44,7), mutilen %50,67k indarkeriaren erdiko pertzepzio maila dute. Hau da, dena

kontuan izanda, neskek mutilek baino zailtasun gehiago dute indarkeria psikologikoa sumatzeko.

Baina, pixka bat sakonduz gero, konparatzen badugu zelan sumatzen duten neskek eta zelan mutilek, desberdintasun interesgarria dago:


**13 Grafikoa. Neskek sumatzen dituzten indarkeria motak, intentsitate mailan.**



- Mespretxua eta derrigortzea**
- Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea**
- Abusu emozionala**

Aurretik esan dugun legez, neskek Eskalako itemak hiru dimentsiotan batu dituzte, eta dimentsio bakoitzari larritasun maila desberdinak eman dizkiote. Batez besteko puntuazioen arabera, hobeto sumatzen dute ageriko indarkeria zuzena

**14 Grafikoa. Mutilek sumatzen dituzten indarkeria motak, intentsitate mailan.**



- Ageriko indarkeria**
- Mespretxua eta manipulazioa**
- Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea**
- Jazarpena eta deskalifikazioa**

(“Mespretxua eta derrigortzea” dimentsioan batu ditugun jokabideak), zailtasunak dituzte kontrola eta bestea bereganatzea indarkeriatzat hartzeko, eta garrantzia gutxi ematen diete jokabide sotilagoei, pasiboagoei, abusu emozionalaren ingurukoiei.

Baina, mutilen kasuan, askoz ere handiagoa da “ageriko indarkeriaren” eta gainontzeko “indarkerien” arteko desberdintasuna. Agerikoa argi eta garbi sumatzen dute (neskek baino puntuazio altuagoak dituzte), baina

gainontzeko indarkeriek nesken antzeko larritasun mailak dituzte, ez dagoelako ñabardurarik, ez puntuazioetan, ezta argudioetan ere.

Esan dezakegu mutilen pertzepzioak indarkeriaren ikuspegi dikotomikoa duela: fisikoa eta sexuala indarkeria argia eta larria da, baina, psikologikoa ez da hain larria eta nahaste handia dute. Neskek, ostera, indarkeria psikologikoa ñabardura gehiagorekin sumatzen dute.


Beraz, honakoa ondoriozta dezakegu: **gazteen arteko bikote harreman heterosexualetan, neskek eta mutilek indarkeria sexistaren pertzepzio desberdina dute.**

Pertzepzio desberdin hori nesken txarrerako da, mutilentzat indarkeria psikologikoa ez delako hain larria, eta nahiz eta konturatu noiz dabilzan indarkeria eragiten, euren jokabideen kudeaketa nesken esku lagatzen dute, nesken ardura izan dadin.

#### 4.3.1. Jokabide batzuetan topatutako desberdintasunak

Atalean, nesken eta mutilen arteko desberdintasun handienak dituzten jokabideak batu ditugu:

15 Grafikoa. Nesken eta mutilen arteko pertzepzio desberdintasunak jokabide beraren aurrean



15 Grafikoan ikusten den moduan, nesken eta mutilen arteko desberdintasunik handiena “egunero 10 dei edo mezu egitea” izeneko jokabidea da. Neskek diote jokabide hori ez dela batere larria (batez besteko puntuazioa 1 baino gutxiagokoa da), eta ukatu egiten dute indarkeriazkoa denik. Mutilek, berriz, hobeto sumatu dute horrenbeste dei egitearen atzean dagoen kontrola, eta erdiko larritasuna eman zioten. Pertzepzioaren desberdintasuna dela eta emandako argudioak kontuan izanda, neskek uste dute mutilek egun guztian deika badabilzta, maite dituztelako dela, eurekin arduratu egiten direlako dela. Mutilek, ostera, badakite kontrolatzeko jokabidea dela.

Antzeko emaitza topatu dugu “neska dagoen tokietara joan abisatu barik” jokabidearen aurrean. Izan ere, neskek azaltzen dute mutila “bat-batean agertzea” maite duenaren seinale dela, baina, mutilek argi dute jokabide hori jazarpena dela, eta zer egiten eta zeinekin dabilen jakiteko zaintza ez dela ardura edo maitasuna, kontrola baino.

Beste aldetik, neskek mutilek baino hobeto sumatzen dituzten jokabideek zerikusi dute jaramonik ez egitearekin. Esan beharra dago arlo hori behin eta berriro indartu izan dela gizonezkoen izaeran belaunaldiz belaunaldi eta kultura guztietan. Hala, uste dute “bakarrik lagatzea ezelako azalpenik eman barik” edo “neskaren haserreari jaramonik ez egitea eta inuzentekeria direla esatea” jokabideak ez direla indarkeriazkoak. Neskek, ostera, larriagotzat dituzte. Nahiz eta neskek zein mutilek pentsatu neskak gehiegi kexatzen direla, mutilek gehiago erabiltzen dute ideia hori jaramonik ez egitea justifikatzeko.

Azkenik, desberdin baloratzen dute “elkarrekin egin beharrekoa erabakitzea, nora joan, ordutegiak..) jokabidea. Neskentzat nahiko jokabide bortitza da (3,31), eta inposizioa dela diote mutilek erabakitzea. Mutilentzat, jokabideak erdiko larritasuna du, ez da hain larria harremanaren “gidaritza” eroatea, edo bie eragiten dieten erabakiak hartzea.

#### 4.3.2. *Desberdintasunak indarkeria sexistari buruzko azalpenetan*

Eztabaida taldeetan topatutako desberdintasunik handiena da mutilen eta nesken argudioen era eta edukia.

Neskek diskurtso nahastua dute eta mutilek zalantzarik ez dute, nahiz eta gero jokabideetan igarri ez. Neskek testuinguruaren argudioak erabiltzen dituzte, adin horretan nahastuta izan arren.

Nesken diskurtsoa “araberaz” beteta dago, mutilen jokabideen atzean dauden arrazoiak aipatzen dituzte, justifikatu egin nahi dituzte, jokabideen agerpenak kuantifikatu egiten dituzte indarkeria diren ala ez erabaki aurretik, tolerantetza dira, ez dira ausartzen erabaki zorrotzak ematen, euren burua “engainatzen” dute, edota euren buruari botatzen diote errua mutilak era batera edo bestera jokatu duelako, autoinkulpatu egiten dira.

Bestalde, mutilek indarkeriari buruzko diskurtso zorrotza dute, indartsua eta zalantza gabekoa; eurentzat, “araberarik” ez dago, eta ezelako zalantzarik ez dute esateko txarto dagoela bikotekide menderatzea eta derrigortzea.

Hemengo eta Senegalgo mutilen



arteko desberdintasunak diskurtsoaren edukian daude, baina ez estiloan. Beraz, nesken eta mutilen diskurtsoen desberdintasuna sexu aldagaiak eragiten du.

- Mutilek indar handiago dute iritziak emateko, zer egin erabakitzeko, harremanetan zer onartu esateko eta eurentzat garrantzitsua ez dena txikiagotzeko, "horiek neskaren gauzak dira" esanez. Mutilek, baloratu aurretik, epaitu egiten dute.

- Neskek zalantza gehiago dute, nahaste handiago dute eta sarriago jotzen dute maitasun ideal erromantikora (mutilen diskurtsoan gutxitan agertu da) eta mutilei barkatzeko, indarkeriaren azalpenen bila ibiltzen dira. Neskak, epaitu aurretik, baloratu eta ulertzen saiatzen dira.


#### 4.4. Ondarroako eta Markina-Xemeingo nerabeen emaitzen konparazioa.

Diagnostikoa, aldagai ugari izan dira kontuan: adina, eskola zentroa, ikasketa maila, nazionalitatea, lan egoera, gaur egungo edo izandako harremana... Emaitzetan, aldagai bakarra da aipatzekoa, zein herritan bizi diren aldagaia.


Horrek esan nahi du gainontzeko aldagaiek ez dutela eraginik nesken eta mutilen puntuazioetan. Baina, neska-mutilak Ondarroakoak edo

Markina-Xemeingoak izan, aipatzeko desberdintasuna dago (esangura maila:  $<0,05$ ) eskaletan lortutako puntuazioan.

16 Grafikoa. Neskek lortutako puntuazioa herriaren arabera



17 Grafikoa. Mutilek lortutako puntuazioa herriaren arabera




Horrela, 16 eta 17 grafikoetan ikus dezakegu Ondarroako neska-mutilek Markina-Xemeingoek baino puntuazio altuagoak dituztela eskalan. Izan ere Markina-Xemeingoek puntuazio baxuagoa dute.

Ondorioz, honakoa esan dezakegu: **Ondarroako gazteek Markina-Xemeingoek baino indarkeriaren pertzepzio maila altuagoa dute.**

Grafikoan zehaztu egin ditugu desberdintasunok.

**18 Grafikoa. Nesken pertzepzio maila herriaren arabera. Ehunekoak**




Markina-Xemeingo neskek desberdintasun handiko ehunekoak dituzte: **%58,4k** indarkeriaren **pertzepzio**

**baxua** dute; **%28,3k** erdiko **pertzepzioa** eta bakarrik **%13,2k** dute indarkeriaren **pertzepzio altua**.

Ostera, Ondarroako neskek ehuneko parekatuak dituzte: **%37,3k** indarkeriaren pertzepzio baxua du; **%29,29k** erdiko pertzepzioa eta **%33,33k** pertzepzio altua.

**19 Grafikoa. Mutilen pertzepzio maila herriaren arabera. Ehunekoak**




Mutilen kasuan, erdiak indarkeriaren erdiko pertzepzioa du, Ondarroakoak edo Markina-Xemeingoak izan. Baina, Markina-Xemeingo mutilen **%35,2k** indarkeriaren pertzepzio baxua dute eta **%13,7k** pertzepzio altua dute. Ondarroakoek, **%30,9k** dute indarkeriaren pertzepzio altua eta **%18,5ek** pertzepzio baxua.

Hala, eskalako ia jokabide guztietan, Ondarroako neska-mutilek Markina-Xemeingoen baino indarkeriaren pertzepzio altuagoa dute eta larritasun maila handiagoa ematen diote.

Hala eta guztiz ere, esan behar dugu desberdintasuna indarkeriaren **identifikazioan** dagoela, jokabideon **intentsitatea** kontuan hartzen denean, desberdintasuna gutxitu egiten delako.

**20 Grafikoa. Neskek sumatzen dituzten indarkeria motak herriaren eta intentsitate mailaren arabera**




Nesken kasuan, herriaren arabera desberdintasuna handia da. Ondarroako neskek Markina-Xemeingoen

baino larritasun handiagoa ematen diete indarkeria mota guztiei, baina ez dago alderik dimentsioak baloratzeko orduan: denek uste dute lehen dimentsioa larriena dela, bigarrena gutxiago eta hirugarrena puntuazio gutxiagorekin baloratu dute.

Indarkeriaren hiru dimentsioetatik, desberdintasunik handiena 2 dimentsioan dago "Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea". Izan ere, Ondarroako eta Markina-Xemeingo nesken arteko puntuazio aldea 0,55ekoa da.

Mutileen multzoan ere antzeko egoera dugu.

**21 Grafikoa. Mutilek sumatzen dituzten indarkeria motak herriaren eta intentsitate mailaren arabera**



## 5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Kasu horretan, Ondarroako eta Markina-Xemeingo gazteen usteen, ageriko indarkeriak larritasun handiago du, eta erdiko larritasuna gainontzeko dimentsioak. Berrito ere, desberdintasuna emandako intentsitate mailan dago, baina ez herri bietako mutilek indarkeria sumatzen duten eran.

Dimentsioen arteko desberdintasunari buruz, mutilen kasuan “harremanen kontrola eta bestea bereganatzea” izeneko dimentsioan dago. Ondarroako eta Markina-Xemeingo mutilen arteko puntuazioen aldea 0,69koa da.

Azkenik, herri bietako gazteen arteko aldeak eztabaida taldeetan ere agertu ziren, horrela baieztatu zuten eztabaidetako dinamizatzaileek. Izan ere, Ondarroako neska-mutilek aipatu egiten zuten eskolako Indarkeriaren Prebentziorako Tailerretan ibilitakoak zirela, eta berba egitean tailerretan ikasitako esaldiak edo kontzeptuak erabiltzen zituzten. Beraz, Markina-Xemeingo gazteak horrelako tailerre-tan ez ibiltzea aldea azaltzeko aldagaia izan daiteke.

Lortutako emaitzen lehen ondorioa da Ondarroako gazteak Markina-Xemeingoak baino sentsibilizatuago daudela indarkeria sexistaren aurka. Errealitate hori emaitzetan agertzen da eta argi erakusten du Ondarroan egin izan den sentsibilizazio eta prebentzio lanaren eragina. Oostera, Markina-Xemeinen ez da horrelako eskuhartzerik izan.

Hala, Ondarroako Udalak garatutako berdintasun politikak eta ikasleentzako hezkuntza jarduerak eragina izan dute gazteen indarkeriari buruzko ideietan eta jarretan.

Baina, egia bada ere desberdintasuna dagoela Ondarroako gazteek indarkeriari ematen dioten garrantzi mailan, ez dugu desberdintasun handirik indarkeria sumatzeko eran Ondarroako gazteen eta Markina-Xemeingoen artean. Emaitza horren ondorioz, uste dugu indarkeria sexistaren gainean **eskuhartze mota bi** garatu behar direla, gazteen artean indarkeriaren pertzepzioa eta analisisa hobetzeko:

- Lehenengoak zerikusi du **ageriko indarkeria sexistaren pertzepzioarekin**. Identifikatzea, esatea, zein ondorio duen jakitea dira eskuhartzearen edukia. Izan ere, horixe izan da Ondarroan orain artean gauzatu den sentsibilizazio lanaren helburua.

- Bigarrenak zerikusi du **desberdintasunaren desnormalizazioarekin**, indarkeria sexistaren oinarria delako. Horretarako, sakondu egin behar da indarkeriaren ezagutzan eta bere inguruan lantzeko eran.

Maila bitan desberdintzeak bat egiten du diagnostikoko bigarren emaitzarik garrantzitsuenarekin: neskek eta mutilek desberdin sumatzen dute indarkeria sexista, intentsitate maila desberdinak ematen dizkiote eta argudioak ere desberdinak dira.

Sarrera teorikoan esan dugun moduan, indarkeriak arrazoi, agerpen eta ondorio desberdinak ditu nesken ustean eta mutilen ustean. Hori dela eta, diagnostikoak kontuan izan du genero ikuspegia:

- Hasteko, ebaluatzeko tresna bi erabili ditugulako, bata neskenentzat eta bestea mutilentzat, antzekoak, baina batzuei eta besteei egokitu-takoak.
- Bigarrena, ez dugulako indarkeria erabiltzea noranzko bietan ebaluatu, hau da, ez dugu aztertu neskek mutilak moduko bortitzak diren ala ez. Diagnostikoaren helburua indarkeria sexistaren pertzepzioa ezagutzea da, indarkeria gizartean eta historian agertzen den legez, gizona eragile eta emakumea biktima. Hori dela eta, neskei jasan-dako indarkeriari buruz galdetu

genien eta mutilei berriz, eragin-dako indarkeriari buruz.

Horrela, egiaztatu dugu neskek arazoak dituztela maitasun harremanetan jasan dezaketen indarkeria psikologikoa benetako indarkeriatzat hartzeko. Mutilek, ostera, nahiko erraz sumatzen dute kontrola edo derrigortzea eragiten dabiltzanean, indarkeria dabiltzala erabiltzen.

Era berean, indarkeriaren pertzepzioan, nesken eta mutilen arteko desberdintasunik handiena harremanean jaramonik ez egitean eta jazarpenean dago.

Jaramonik ez egitea dela eta, bai mutilek bai neskek uste dute “emakumeak gehiegi kexatzen direla”, edota emakumeen beharrak eta ardurak ez direla hain garrantzitsuak. Hala eta guztiz ere, nahiz eta mutilek jaramonik ez egitea onartu eta ondo iruditu, eta kontuan hartu ez, neskei kasurik ez egitea, bere arazoak “txorradak” direla esatea, edo “pasando” egitea indarkeria dela, neskek badute eragindako kalteen pertzepzioa, bikotekideak jaramonik egiten ez dionean edo garrantzirik ematen ez dionean.

Beraz, esan dezakegu talde bietan daudela ideia sexistak harremanean sexu bakoitzak duen rolari buruz, baina neskek ez dute batere gustuko bikotekideak eurak ez baloratzea edo kontuan ez izatea. Mutilek, berriz, uste dute zilegi dutela isilik egotea bikote-

kideari garrantzia kentzeko.

Jazarpena dela eta, neskek txikiagotu egiten dute eragiten duen indarkeria, eta arrazoi bila hasten dira. “arduratu egiten delako da, nire bila dator maite-maite nauelako”, esaldia erabiltzen dute neskek mutilen jokabide hori indarkeriazkoa ez dela justifikatzeko. Mutilek, ostera, “hori jazarpena da, itotzea da” esaten dute, askoz ere argiago sumatzen dutelako jazarpena bikotekidea mendeen izateko egiten dela.

Dirudienez, neskek euren burua engainatzen dute. Izan ere, emakumeek, txikitatik, erlatibizatu egiten dituzte nagusitasun maskulinoaren esperientziak, barruratu, normalizatu eta onartu egiten dituzte, ohitura eta mutilen berezko izaeraren ezaugarri bihurtu arte, zalantzan jarri barik.

Mutilek, berriz, onartu egiten dute eragin dezaketen jazarpena eta justifikatzeko argudio paternalistak erabiltzen dituzte. Euren burua autoritatetzat dute eta txikitatik dakite neskenganako dituzten berbak eta jarrerak garrantzitsuak direla. Argi dute eskubidea dutela neskengan autoritatea izateko.

Esandako guztia kontuan izanda, autoritate maskulinoari eta autoritate femeninoari buruz hausnartu beharra dago.

Mutilek, gaztetatik dute autoritatea ekintza bat indarkeria dela erabakitze-ko, argudioak emateko eta epaitzeko, eta mailakatze hori egiteko (“hori txarto dago”) kanpoko irizpideetatik baloratzen dute. Diskurtsoan ez dituzte ia justifikatzen harremanetan izan ditzaketen kontrolatzeko saiakerak. Izan ere, sumatu eta onar dezakete horrelako jokabideak “txarto daudela”, baina ez dute justifikatzeko beharrik ikusten.

Bestalde, neskek benetako arazoak dituzte irizpideak ezartzeko edo zalantza gabeko diskurtsoa izateko. Nahaste handia dute, testuinguruaren araberrako aldeak dituzte, indarkeriazko jokabidea dela esan aurretik, azalpen eta arrazoi bila dabilta, eta indarkeriatzat mailakatzeko, barruko irizpideak erabiltzen dituzte, esperientziatik sortutakoak.

Hori sekulako arriskua da neskentzat, bizitako esperientzien bidez balortzeak esan nahi duelako “probatu”, bizi eta “sufritu” egin dutela, kasu batzuetan, denbora pasa ahala, errealitatea onartzeko.

Izan ere, harremanean kontrola erabiltzeak neskentzat eta mutilentzat duen helburuari buruz hausnartzen badugu, aldea dago. Neskek bikotekidea hurrean izateko erabiltzen dute, harremanak irauteko (“mugikorra begiratzea beste neska baten mezurik duen jakiteko”). Mutilek harremanean autoritatea mantentzeko egiten dute (“planak erabaki, parrandan joateko

guapa jartzeko esatea”).

Beraz, indarkeria prebenitzeko lanaren erronka desberdintasunaren erdigune sakon horretan eragitea da, gizonen uste dutelako autoritatea izateko zilegitasuna dutela eta emakumeek ez dute autoritaterik erabiltzen, eta, gainera, uste dute ez dutela zilegitasunik autoritate maskulinoa zalantzan jartzeko.

Nesken pertzepzioak eta argudioak mutilenen mende daude eta jokabideen balorazioa ere mutilen iritziaren araberakoa da. Horrexegatik, zalantzan jarri behar dute bai neskek bai mutilek berdintasuna lortuta dutenik. Egon badaude berdintasuna lortu den arloak, baina diagnostikoan argi gelditu da ez dela berdintasunik lortu bakoitzaren autoritatean erabakitzeke zer den komeni bikote harremanean eta zelan eraikitzen den lotura mende-kotasuna oinarrizkoa izan barik.

Gazteek errealitate hori sumatzea eta aldatzea benetako erronka da, baita gizarteak aldea sumatzea ere. Zoritxarrez, gizarteak uste du “berdintasuna” “zati berdinarak” direla, eta gizonen eta emakumeen artean dagoen eta egon izan den desberdintasun sinbolikoa nahastu egin du. Gizarteak, oraindik, ez du onartzen desberdinak direla gizonen eta emakumearen aurka erabiltzen duten indarkeria eta emakume batzuek gizonen aurka erabil dezaketen indarkeria. Gizartean esaten da “gizonak eta emakumeak berdinarak garelak”,

onartu barik emakumeek eta gizonen bizitzako esperientzia, historia eta premia desberdinak ditugula.

Hurrengo pausoa indarrak batu eta zailtasunok gainditzen saiatzea izango da: indarkeria sexista prebenitzeko lan egitea, desberdintasunaren maila sinbolikoetan sakonduz, eta berdintasun politikak nesken eta mutilen premiei begira lantzea, banataria, eta ez denei batera.

## JARDUERARAKO PROPOSAMENAK

### *Hezkuntza arlorako jarduerak*

- Gelako lana inguru ez mistoetan.

Nesken eta mutilen premiak desberdinak badira, eta indarkeriaren pertzepzio maila ere desberdina badute, egin beharreko sentsibilizazio lanak genero ikuspegia behar du: nesken-tzat, indarkeria hobeto sumatzeko ekintzak eta mutilentzat, maskulinitate berriei buruz hausnartzeko ekintzak.

- Lehen hezkuntzan materialak lantzea.

Kontuan izanda gazteen diskurtsoetan nesken eta mutilen arteko desberdintasun nabarmenak daudela, ezinbestekoa da desberdintasuna “desaktibatzeke” lana txikitatik hasia. Nahiz eta maitasun harremanak nerabezaroan hasi eta indarkeriaren aztarnak orduan agertu, kontuan badugu mutilen indarkeriazko jokabideek genero desberdintasuna dutela oinarri txikitatik,

prebentzio lana ere hasieratik egin behar dugu.

- Irakasleen sentsibilizazioa

Indarkeria prebenitzeko hezkuntza jarduerak hausnartu behar handia eta konplexua dakarte. Ez da nahikoa ikasleekin saio batzuk lantzea, irakasleek ere prestatu beharra dutelako, jardueron eragina handiagoa izan dadin.

- Gurasoen sentsibilizazioa

Era berean, kontuan izanez gero hezteko eraginik handiena familiak duela, oinarritzkoa da gurasoak hezkuntza ez sexistan inplikatzeko.

- Desberdintasunaren prebentzioan sakontzea

Hezkuntzan, orain arteko jarduerak ageriko indarkeriaren prebentzioa izan dute helburu, hau da, bikote gazteetan indarkeria zelan agertzen den eza-gutzen eta sumatzen ikastea. Baina indarkeriaren maila sinbolikoetan sakontzeak ez du antzeko esperientziarik izan. Hori dela eta, beharrezkoa da ikertzen jarraitzea.

### ***Udalentzako jarduerak***

Herri bientzat:

- Ikerketaren emaitzak zabaltzea emakumeen, gazteen eta kirol taldeei, irakasleei eta udal agintariei, indarkeria sexistaren meka-

nismoak hobeto ulertzeko eta sentsibilizazio maila handitzeko.

- Gazteei diagnostikoaren emaitzen berri jarduera ludikoen bitartez ematea, esate baterako, antzerkia, komikiak edo gazteen komunikaziorako hizkuntzak erabilita.

- Lea Artibaiko Amankomunazgoarekin jarduerak koordinatzea, eskuhartze sozioedukatiboko taldeak diagnostikoaren emaitzak zabaltzeko eta kontuan izateko euren prebentzio eta laguntza lanetan.

- Diagnostikoaren emaitzak argitaratu eta partekatzea Amankomunazgoko gainontzeko herriekin eta EUDELekin.

- Diagnostikoarekin hasitako indarkeriari eta gazteei buruzko ikerketa lerroa mantentzea, bestelako gaiak ere landuz, esaterako, autoritate maskulinoa eraikitzeke mekanismoak edo aisialdirako tokietan izaten den indarkeria.

- Gaiaren inguruko herri bien arteko lankidetzari jarraipena ematea, garatutako esperientzien sinergiak eraikitzeko.

Ondarroa:

- Eskoletan indarkeriaren prebentziorako lanarekin jarraitzea, erakutsi duelako gazteen artean sentsibilizazio handiagoa sor dezakeela.



- Indarkeria sinbolikoari buruzko hausnarketan sakontzea, adibidez, Jabekuntza Eskolan.

- Desberdintasunaren prebentzio-rako eta sentsibilizatorako lanean sakontzea (bigarren maila). Horretarako talde bat era daiteke, indarkeria psikologikoaren aurka argi eta garbi egiten duten nesken %25aren sentsibilizazioa bideratzeko.

- Eragin dezaketen indarkeria ondo sumatu baina rol hori izan nahi ez duten mutilen %30 hori bideratzea, prebentzio programa egokiagoak gauzatu eta autoritate maskulinoaren zilegitasuna zalantzan jartzeko.

#### Markina-Xemein:

- Ageriko indarkeria sexistaren prebentzio eta sentsibilizazio lana hastea (lehen maila), gazteek hobeto sumatzeko eta aurka egoteko.

- Ekimenari jarraipena emateko, berdintasun saila sortzea, diagnostikoaren proposamenak eta gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko jarduerak aurrera eramateko.

## 6. BIBLIOGRAFIA

Berdintasun Ministerioa (2010). Igualdad y Prevención de la Violencia de Género en la Adolescencia. 2010eko uztailan aurkeztutako Ikerketa. Berdintasun Ministerioa. Madril.

Bonino L., Leal D., Lozoya J. A., Szil P., (2002). Por cada mujer hay un hombre... Texto alternativo. Interneten dago.

Fishbein, M. eta Ajzen, I. (1975). Belief, attitude, intention and behavior: an introduction to theory and research reading. Massachusetts: Addison-Wesley.

Izarra, M. Pinto, M. J. Arroyo, L. (sf). Parejas adolescentes: del amor y sus límites. Interneten dago.

Martínez, A. (sf). La nueva masculinidad adolescente. Un aprendizaje desde el fracaso. Interneten dago.

Ramírez, A. (2000). Violencia masculina en el hogar. Alternativas y soluciones. Pax-México. Mexiko.

Rivera, C. (2002) ¿Violento yo? ¿Pues cuándo te he pegado?: La violencia masculina detrás de las relaciones de noviazgo. Interneten dago.

Vázquez, Estébanez, Cantera. (2009).

Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo. Deustu-San Inazikioko Modulu Psikosoziala. Bilbo.

Villaseñor, M., Castañeda, J. (2003). Masculinidad, sexualidad, poder y violencia: análisis de significados en adolescentes. Salud Pública Mex, 45, 1. gehig. 44-57orri.

## 7. ERANSKINA

### 1 Eranskina. Taula espezifiko batzuk

#### 1 TAULA

#### VEC ESKALAREN ETA VE-m ESKALAREN ITEMEN KORRESPONDENTZIA

| VEC ESKALA (NESKAK)              |  |              |             | VE-M ESKALA (MUTILAK)            |  |             |             |
|----------------------------------|--|--------------|-------------|----------------------------------|--|-------------|-------------|
| Zb                               | Esaldia  | BAI % Maila  |             | Zb                               | Esaldia  | BAI % Maila |             |
| 18                               | Berak nahi duena egiten ez baduzu, utzi egingo zaituela esaten dizu mehatxatzeko     | 90,2         | 4,07        | 05                               | Mehatxatzea ez duenean egiten nahi duzuna edo kontra egiten dizunean   | 93,2        | 4,06        |
| 24                               | Berarekin itzuli ezean zer bait egingo zizula esaten zizun                           | 83,7         | 4,19        | 14                               | Uzten bazaitu bizimodu jasanezina egitearekin mehatxatu  | 93,2        | 4,12        |
| <b>MEHATXUAK (batez beste)</b>   |  | <b>86,95</b> | <b>4,13</b> | <b>MEHATXUAK (batez beste)</b>   |  | <b>93,2</b> | <b>4,09</b> |
| 05                               | Ez du zu lagunekin elkartzerik nahi  | 89,5         | 3,67        | 20                               | Bere lagunak ez ikusteko esatea  | 88,5        | 3,63        |
| <b>ISOLAMENDUA (batez beste)</b> |  | <b>89,5</b>  | <b>3,67</b> | <b>ISOLAMENDUA (batez beste)</b> |  | <b>88,5</b> | <b>3,63</b> |
| 9                                | Burla egiten dizu eta, horretarako, min handia ematen dizuten kontuez baliatzen da   | 92,8         | 44,27       | 16                               | Berari barre egitea, beste neska batzuekin konparatzea, gauzak esatea jakinda lotsatu egingo dela edo min emango diotela | 95,2        | 3,61        |
| 22                               | Lotsarazten zaituzten gauzez hitz egiten du, zelan sentiarazten zaituzten badaki ere | 88,9         | 3,07        |                                  |  |             |             |
| <b>UMILIAZIOA (batez beste)</b>  |  | <b>90,85</b> | <b>3,67</b> | <b>UMILIAZIOA (batez beste)</b>  |  | <b>95,2</b> | <b>3,61</b> |

| Zb | Esaldia   | BAI % Maila |             | Zb | Esaldia  | BAI % Maila  |             |
|----|---|-------------|-------------|----|--|--------------|-------------|
| 12 | Antigoaleko bat zarela dio, zure sentipenak zalantzan jartzen ditu edo kritikatzan zaitu berarekin sexu harremanik nahi ez baduzu | 88,2        | 3,65        | 11 | Ez badu nahi sexu-harremanik izan zurekin, kritikatzeta eta zalantzan jartzea maite zaituenik  | 84,4         | 3,14        |
| 13 | Ez da antisorgailuez arduratzen edo kezkatzen   | 71,2        | 2,94        |    |  |              |             |
|    |   |             |             | 15 | Zuen sexu-harremanetan preserbatiborik ez erabiltzea   | 78,9         | 2,86        |
|    |   |             |             | 19 | Berak egin nahi ez dituen edo bere gustukoak ez diren sexu-jokoetara behartu                   | 95,2         | 4,06        |
|    |   |             |             | 24 | Sexu-harremanak izateko derrigortzea   | 94,5         | 4,39        |
|    | <b>PRESIO SEXUALA (batez beste)</b>   | <b>79,7</b> | <b>3,29</b> |    | <b>INDARKERIA SEXUALA (batez beste)</b>  | <b>88,25</b> | <b>3,61</b> |
| 17 | Zure objektu pertsonalak (zorroa, agenda, eta abar) arakatzen ditu baimen barik   | 887,6       | 3,36        |    |  |              |             |
| 20 | Harremanaren arauak inposatzen ditu (ateratzeko egunak, ordutegiak, irteera motak, etab.)   | 85          | 3,31        | 17 | Elkarrekin egin beharreko planak zeuk erabakitzea (zein egunetan irten, nora joan, ordutegiak) | 79           | <b>2,35</b> |
| 4  | Zure telefono deiak eta mezuak, baita posta elektronikoa ere, arakatzen ditu  | 86,3        | 3,29        | 9  | Berak jasotako deiak, mezuak, helbide elektronikoa, tuenti-a edo facebook-a kontrolatzea       | 87,1         | 2,95        |
| 1  | Norekin irten zaitezkeen eta norekin ez esaten dizu   | 87,6        | 3,26        | 1  | Neskari esatea zeinekin irten behar duen eta zeinekin ez                                       | 86,4         | 3,14        |
| 2  | Jantzeko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esaten dizu  | 81,7        | 2,84        | 6  | Jantzeko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esatea                                      | 68,9         | 2,06        |
| 3  | Egiten duzun guztia jakin nahi du, non zauden edo norekin zauden berarekin ez zaudenean   | 77,1        | 2,60        |    |  |              |             |
|    | <b>KONTROLA (batez beste)</b>   | <b>84,2</b> | <b>3,11</b> |    | <b>KONTROLA (batez beste)</b>  | <b>80,35</b> | <b>2,62</b> |

| Zb | Esaldia  | BAI %       | Maila       | Zb | Esaldia   | BAI %        | Maila       |
|----|--|-------------|-------------|----|---|--------------|-------------|
| 16 | Emakume guztiei buruz gaizki esaka ibiltzen da, baita burlaka ere                              | 83,7        | 3,23        | 13 | Bere aurrean emakumeei buruzko iruzkin mesprezuzkoak egin                               | 87,7         | 3,01        |
| 8  | Zure itxura, janzkera edo pentsaera kritikatzan du   | 84,3        | 2,92        | 2  | Bere itxura edo pentsatzeko erarekin sartzea  | 82,4         | 2,66        |
|    | <b>DESKALIFIKAZIOA (batez beste)</b>   | <b>84</b>   | <b>3,07</b> |    | <b>DESKALIFIKAZIOA (batez beste)</b>  | <b>85,05</b> | <b>2,83</b> |
| 23 | Zure haserrealdiak ez ditu kontuan hartzen edo tontakeriatzat jotzen ditu                      | 83          | 2,82        | 8  | Jaramonik ez egitea haserretzen denean edo bere haserrealdiak tontakeriak direla esatea | <b>48,2</b>  | <b>1,29</b> |
| 14 | Bere kabuz erabakitzen du kontsultatu barik edo zure iritzia eskatu barik                      | 76,5        | 2,62        |    |   |              |             |
| 10 | Ez ditu bere hutsegiteak onartzen, eta inoiz ez du barkamenik eskatzen                         | 75,8        | 2,57        | 25 | Zure akatsak ez onartzea edo barkamenik ez eskatzea                                     | 87,1         | 3,18        |
| 11 | Ez da hitzordura azaltzen inolako azalpenik eman gabe  | 63,4        | <b>2,14</b> | 4  | Ez agertzea eta bakarrik lagatzea azalpenik eman barik                                  | 52           | <b>1,67</b> |
|    | <b>INDIFERENTZIA (batez beste)</b>   | <b>74,6</b> | <b>2,53</b> |    | <b>INDIFERENTZIA (batez beste)</b>  | <b>62,4</b>  | <b>2,04</b> |
| 6  | Beste mutil batzuekin ikusten zaituenean, haiek liluratu eta erakarri nahian zabiltzala diotsu | 74,5        | 2,71        | 3  | Errieta egin beste mutilekin hitz egiten duenean ligatzen dabilela uste duzulako        | 85,8         | 3,09        |
| 19 | Telefonoz deitzen badizute jeloskor jartzen da   | 60,8        | <b>1,91</b> |    |   |              |             |
|    |  |             |             | 12 | Zure zeloen errua berari bota, berak zeloak eragiten dizkizulako                        | 83,7         | 2,59        |
|    |  |             |             | 22 | Besteek begiratzea nahi duelako era probokagarrian jantzen dela esatea                  | 73,6         | <b>2,37</b> |
|    | <b>ZELOAK (batez beste)</b>  | <b>67,6</b> | <b>2,31</b> |    | <b>ZELOAK (batez beste)</b>   | <b>81,03</b> | <b>2,68</b> |

| Zb | Esaldia  | BAI % Maila  |             | Zb | Esaldia  | BAI % Maila |             |
|----|--|--------------|-------------|----|--|-------------|-------------|
| 15 | Tranpak jarri dizkizu zenbateraino maite duzun jakiteko  | 58,8         | <b>2,08</b> |    |  |             |             |
| 25 | Momenturen batean harremana eten bazenuten, berarekin itzultzeko esaten zizun behin eta berriz; aldatuko zela esaten zizun, hitza ematen zizun | <b>46,4</b>  | <b>1,49</b> | 23 | Laga zaituenean, aldatu egingo zarela esatea, berriro zurekin egon dadin   | <b>37,8</b> | <b>1,32</b> |
|    |  |              |             | 7  | Bere zereginei uko egitea eskatzea, zenbat maite zaituen frogatzeko        | 73,6        | 2,5         |
|    | <b>MANIPULAZIO EMOZIONALA (batez beste)</b>  | <b>52,6</b>  | <b>1,78</b> |    | <b>MANIPULAZIO EMOZIONALA (batez beste)</b>                                | <b>55,7</b> | <b>1,91</b> |
| 7  | Azkenaldian, ibili ohi zaren lekuetan agertzen da abisatu gabe   | 60,8         | <b>1,98</b> | 10 | Bera dagoen tokietara joatea, zer egiten duen eta zeinekin dagoen jakiteko | 79,7        | 2,87        |
| 21 | Egunean 10 bat dei galdu (edo mezu) baino gehiago egiten dizu  | <b>37,3</b>  | <b>0,95</b> | 18 | Egunean 10 dei edo mezu baino gehiago egitea, jakiteko zertan dabilen      | 76,3        | 2,64        |
|    | <b>JAZARPENA (batez beste)</b>   | <b>49,05</b> | <b>1,46</b> |    | <b>JAZARPENA (batez beste)</b>   | <b>78</b>   | <b>2,75</b> |
|    |  |              |             | 21 | Eztabaida batean gauzak jo, bota edo apurtu                                | 90,5        | 3,91        |
|    |  |              |             |    | <b>INDARKERIA FISIKOA (batez beste)</b>                                    | <b>90,5</b> | <b>3,91</b> |


## 2 TAULA

VEC eta VE-m Eskalen batez besteko pertzepzio maila erabilitako indarkeria motaren arabera.

| MUTILAK                 |      | NESKAK |                                    |
|-------------------------|------|--------|------------------------------------|
| Mehatxuak               | 4,09 | 4,13   | Mehatxuak                          |
| Indarkeria fisikoa      | 3,91 | --     | --                                 |
| Isolamendua             | 3,63 | 3,67   | Isolamendua                        |
| Umiliazioa              | 3,61 | 3,67   | Umiliazioa                         |
| Indarkeria sexuala      | 3,61 | 3,29   | Presio eta arduragabekeria sexuala |
| Deskalkifikazioa        | 2,83 | 3,11   | Kontrola                           |
| Jazarpena               | 2,75 | 3,07   | Deskalkifikazioa                   |
| Zeloak                  | 2,68 | 2,53   | Indiferentzia afektiboa            |
| Kontrola                | 2,62 | 2,31   | Zeloak                             |
| Indiferentzia afektiboa | 2,04 | 1,78   | Manipulazio emozionala             |
| Manipulazio emozionala  | 1,91 | 1,46   | Jazarpena                          |

## 2 TAULA

VEC eta VE-m Eskalen batez besteko pertzepzio maila erabilitako indarkeria motaren arabera.



## 3 TAULA

VEC Eskalako itemen pertzepzio maila herrika (neskak)

### VEC ESKALA (NESKAK)

| Item zb | Esaldia  | BAI % | ONDARROA    | MARKINA-XEMEIN |
|---------|--|-------|-------------|----------------|
| 18      | Berak nahi duena egiten ez baduzu, utzi egingo zaituela esaten dizu mehatxatzeko   | 90,2  | 4,27        | 3,69           |
| 24      | Momenturen batean harremana eten bazenuten, mehatxatu egiten zintuen berarekin itzultzeko, eta berarekin itzuli ezean zerbait egingo zizula esaten zizun |       | 4,29        | 4,01           |
|         | <b>MEHATXUAK (batez beste)</b>   |       | <b>4,28</b> | <b>3,85</b>    |



| Item zb | Esaldia  | BAI % | ONDARROA    | MARKINA-XEMEIN |
|---------|--|-------|-------------|----------------|
| 05      | Ez du zu lagunekin elkartzerik nahi  |       | 3,86        | 3,32           |
|         | <b>ISOLAMENDUA (batez beste)</b>   |       | <b>3,86</b> | <b>3,32</b>    |
| 9       | Ez du zu lagunekin elkartzerik nahi  | 92,8  | 4,29        | 4,24           |
| 22      | Lotsarazten zaituzten gauzez hitz egiten du, zelan sentiarazten zaituzten badaki ere   |       | 3,12        | 3              |
|         | <b>UMILIAZIOA (batez beste)</b>  |       | <b>3,70</b> | <b>3,62</b>    |
| 12      | Antigoaleko bat zarela dio, zure sentipenak zalantzan jartzen ditu edo kritikatzten zaitu berarekin sexu harremanik nahi ez baduzu |       | 3,74        | 3,49           |
| 13      | Ez da antisorgailuez arduratzen edo kezkatzen  |       | 2,98        | 2,84           |
|         | <b>PRESIO SEXUALA (batez beste)</b>  |       | <b>3,36</b> | <b>3,16</b>    |
| 17      | Zure objektu pertsonalak (zorroa, agenda, eta abar) arakatzten ditu baimen barik   |       | 3,49        | 3,13           |
| 20      | Harremanaren arauak inposatzen ditu (ateratzeko egunak, ordutegiak, irteera motak, etab.)  |       | 3,57        | 2,80           |
| 4       | Zure telefono deiak eta mezuak, baita posta elektronikoa ere, arakatzten ditu  |       | 3,43        | 3,01           |
| 1       | Norekin irten zaitezkeen eta norekin ez esaten dizu  |       | 3,31        | 3,09           |

| Item zb | Esaldia  | BAI % | ONDARROA    | MARKINA-XEMEIN |
|---------|--|-------|-------------|----------------|
| 2       | Jantzeko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esaten dizu                                 |       | 3           | 2,54           |
| 3       | Egiten duzun guztia jakin nahi du, non zauden edo norekin zauden berarekin ez zaudenean        |       | 2,79        | <b>2,24</b>    |
|         | <b>KONTROLA (batez beste)</b>  |       | <b>3,26</b> | <b>2,80</b>    |
| 16      | Emakume guztiei buruz gaizki esaka ibiltzen da, baita burlaka ere                              |       | 3,29        | 3,07           |
| 8       | Zure itxura, janzkera edo pentsaera kritikatzan du   |       | 2,92        | 2,92           |
|         | <b>DESKALIFIKAZIOA (batez beste)</b>   |       | <b>3,10</b> | <b>2,99</b>    |
| 23      | Zure haserrealdiak ez ditu kontuan hartzen edo tontakeriatzat jotzen ditu                      |       | 3,05        | <b>2,39</b>    |
| 14      | Bere kabuz erabakitzen du kontsultatu barik edo zure iritzia eskatu barik                      |       | 2,75        | <b>2,39</b>    |
| 10      | Ez ditu bere hutsegiteak onartzen, eta inoiz ez du barkamenik eskatzen                         |       | 2,72        | <b>2,28</b>    |
| 11      | Ez da hitzordura azaltzen inolako azalpenik eman gabe  |       | <b>2,37</b> | <b>1,71</b>    |
|         | <b>INDIFERENTZIA (batez beste)</b>   |       | <b>2,72</b> | <b>2,19</b>    |
| 6       | Beste mutil batzuekin ikusten zaituenean, haiek liluratu eta erakarri nahian zabiltzala diotsu |       | 2,87        | <b>2,41</b>    |
| 19      | Telefonoz deitzen badizute jeloskor jartzen da   |       | <b>2,14</b> | <b>1,49</b>    |
|         | <b>ZELOAK (batez beste)</b>  |       | <b>2,50</b> | <b>1,95</b>    |

| Item zb | Esaldia  | EZ %            | ONDARROA | MARKINA-XEMEIN |
|---------|--|-----------------|----------|----------------|
| 15      | Tranpak jarri dizkizu zenbateraino maite duzun jakiteko  |                 | 2,29     | 1,69           |
| 25      | Momenturen batean harremana eten bazenuten, berarekin itzultzeko esaten zizun behin eta berriz; aldatuko zela esaten zizun, hitza ematen zizun | %<br>49,7<br>EZ | 1,67     | 1,15           |
|         | <b>MANIPULAZIO EMOZIONALA (batez beste)</b>  |                 | 1,98     | 1,42           |
| 7       | Azkenaldian, ibili ohi zaren lekuetan agertzen da abisatu gabe   |                 | 2,36     | 1,30           |
| 21      | Egunean 10 bat dei galdu (edo mezu) baino gehiago egiten dizu  | %<br>62,1<br>EZ | 1,11     | 0,66           |
|         | <b>JAZARPENA (batez beste)</b>   |                 | 1,73     | 0,98           |

#### 4 TAULA

VE-m Eskalako itemen pertzepzio maila herrika (mutilak)

#### VE-M ESKALA (MUTILAK)

| Item zb | Esaldia  | BAI % | ONDARROA | MARKINA-XEMEIN |
|---------|--|-------|----------|----------------|
| 5       | Mehatxatzea ez duenean egiten nahi duzuna edo kontra egiten dizunean | 93,2  | 4,12     | 3,94           |
| 14      | Uzten bazaitu bizimodu jasanezina egitearekin mehatxatu              | 93,2  | 4,17     | 4,09           |
|         | <b>MEHATXUAK (batez beste)</b>                                       |       | 4,14     | 4,01           |

| Item zb | Esaldia  | BAI % | ONDARROA    | MARKINA-XEMEIN |
|---------|--|-------|-------------|----------------|
| 20      | Bere lagunak ez ikusteko esatea  |       | 3,82        | 3,26           |
|         | <b>ISOLAMENDUA (batez beste)</b>   |       | <b>3,82</b> | <b>3,26</b>    |
| 16      | Berari barre egitea, beste neska batzuekin konparatzea, gauzak esatea jakinda lotsatu egingo dela edo min emango diotela | 95,2  | 3,69        | 3,47           |
|         | <b>UMILIAZIOA (batez beste)</b>  |       | <b>3,69</b> | <b>3,47</b>    |
| 11      | Ez badu nahi sexu-harremanik izan zurekin, kritikatzeta eta zalantzan jartzea maite zaituenik                            |       | 3,23        | 2,98           |
| 15      | Zuen sexu-harremanetan preserbatiborik ez erabiltzea   |       | 2,82        | 2,94           |
| 19      | Berak egin nahi ez dituen edo bere gustukoak ez diren sexu-jokoetara behartu   | 95,2  | 4,15        | 3,88           |
| 24      | Sexu-harremanak izateko derrigortzea   | 94,5  | 4,38        | 4,41           |
|         | <b>INDARKERIA SEXUALA (batez beste)</b>  |       | <b>3,64</b> | <b>3,55</b>    |
| 17      | Elkarrekin egin beharreko planak zeuk erabakitzea (zein egunetan irten, nora joan, ordutegiak)                           |       | 2,51        | <b>2,05</b>    |
| 9       | Berak jasotako deiak, mezuak, helbide elektronikoa, tuenti-a edo facebook-a kontrolatzea                                 |       | 3,13        | 2,62           |
| 1       | Neskari esatea zeinekin irten behar duen eta zeinekin ez   |       | 3,32        | 2,78           |
| 6       | Jantzeko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esatea  |       | <b>2,27</b> | <b>1,64</b>    |
|         | <b>KONTROLA (batez beste)</b>  |       | <b>2,80</b> | <b>2,27</b>    |

| Item zb | Esaldia   | EZ %                     | ONDARROA    | MARKINA-XEMEIN |
|---------|---|--------------------------|-------------|----------------|
| 13      | Bere aurrean emakumeei buruzko iruzkin mesprezuzkoak egin                               |                          | 3,20        | 2,64           |
| 2       | Bere itxura edo pentsatzeko erarekin sartzea  |                          | 2,92        | <b>2,15</b>    |
|         | <b>DESKALIFIKAZIOA (batez beste)</b>  |                          | <b>3,06</b> | <b>2,39</b>    |
| 8       | Jaramonik ez egitea haserretzen denean edo bere haserrealdiak tontakeriak direla esatea | <b>%<br/>51,7<br/>EZ</b> | <b>1,47</b> | <b>0,94</b>    |
| 25      | Zure akatsak ez onartzea edo barkamenik ez eskatzea                                     |                          | 3,37        | 2,84           |
| 4       | Ez agertzea eta bakarrik lagatzea azalpenik eman barik                                  |                          | <b>1,94</b> | <b>1,15</b>    |
|         | <b>INDIFERENTZIA (batez beste)</b>  |                          | <b>2,26</b> | <b>1,64</b>    |
| 3       | Errieta egin beste mutilekin hitz egiten duenean ligatzen dabilela uste duzulako        |                          | 3,31        | 2,68           |
| 12      | Zure zeloan errua berari bota, berak zeloak eragiten dizkizulako                        |                          | 2,76        | <b>2,29</b>    |
| 22      | Besteek begiratzea nahi duelako era probokagarrian jantzen dela esatea                  |                          | 2,60        | <b>1,92</b>    |
|         | <b>ZELOAK (batez beste)</b>   |                          | <b>2,89</b> | <b>2,29</b>    |

| Item zb | Esaldia  | EZ % | ONDARROA    | MARKINA-XEMEIN |
|---------|--|------|-------------|----------------|
| 23      | Besteek begiratzea nahi duelako era probokagarrian janzen dela esatea  |      | 1,62        | 0,74           |
| 7       | Bere zereginetara uko egitea eskatzea, zenbat maite zaituen frogatzeko |      | 2,76        | 2,01           |
|         | <b>MANIPULAZIO EMOZIONALA (batez beste)</b>                            |      | <b>2,19</b> | <b>1,37</b>    |

|    |  |  |             |             |
|----|--|--|-------------|-------------|
| 10 | Bera dagoen tokietara joatea, zer egiten duen eta zeinekin dagoen jakiteko |  | 3,03        | 2,58        |
| 18 | Egunean 10 dei edo mezu baino gehiago egitea, jakiteko zertan dabilen      |  | 2,94        | 2,07        |
|    | <b>JAZARPENA(batez beste)</b>  |  | <b>2,98</b> | <b>2,32</b> |

| Item zb | Esaldia                                     | BAI % | ONDARROA    | MARKINA-XEMEIN |
|---------|---|-------|-------------|----------------|
| 21      | Eztabaida batean gauzak jo, bota edo apurtu | 90,5  | 3,88        | 3,96           |
|         | <b>INDARKERIA FISIKOA (batez beste)</b>     |       | <b>3,88</b> | <b>3,96</b>    |



